



ARGIA

ESTREINATZERA
DOAZEN EUSKAL
ZINEMA EKOIZPENAK

NOLA JARRI ESKOLAN
BERTAKO JANTOKIA

ZER GERTATU DA
KOLONBIAN EZEZKOA
GAILENTZEKO?

CARME JUNYENT

HIZKUNTZA GUTXIAGOTUEN ALDEKO BORROKALARI ZORROTZA

*"Indiferenteak
aktibatzea da
gakoa"*

*"Gizartea
eleanitza da,
ez elebiduna"*

*"Katalana ongi
doala diote;
ez da hala"*



BABESLEA

AZKUE
FUNDAZIOA

INFO+



BIDEO LEHIAKETA

VII. GAZTEZULO BIDEO LEHIAKETA

1.GO. SARIA: 1.200 EURO 2. SARIA: 300 EURO

OINARRIAK GAZTEZULO.EUS WEBGUNEAN



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Eric Dicharry
- 19 Aingeru Epaltza
Itxaro Borda



Iruñeko LGTBQI bulego berriko arduraduna da Xabi Sanchez Goronaeta.

(ARGAZKIA: JOSU SANTESTEBAN)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
XABI SANCHEZ GORONAETA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: VICTOR SERRI

SAKONEAN

- 12 | Nerea Pérez Ibarrola, historialaria: "Egun badirudi ez dugula gauzak aldatzeko konfiantzarik" / Reyes Ilintxeta
- 20 | Gure eskolan bertako jantokia jartzeko 4 urratsak / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 26 | Carme Junyent: "Indiferentziak hiltzen ditu hizkuntzak, ez hizkuntzaren kontrako etsaigoak" / Miel A. Elustondo
- 30 | Kolonbiako bake prozesua: Uribek ere ez zuen espero / Lukas Barandiaran San Roman
- 32 | 'Galerna': Amarru baten zorigaitz iragarria / Urko Apaolaza Avila
- 34 | Justu Egune, beste Bilbo baten oihartzuna / Dabi Piedra
- 36 | Ikus terapiak: "%100 ikustea ez da ondo ikustea" / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 37 | Mari Paz Arrula Ruiz: "Intimitatean ere, emakumeok libre sentitu nahi dugu" / Eider Madina Berasategi
- 43 | Menderik mendeko eratorria / Itxaro Borda
- 46 | Osasuntsu al dago euskal zinema? / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean. Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



An aerial photograph of a coastal landscape. In the foreground, a wide, dark brown sandy beach stretches across the bottom. Two small figures of people are walking on the sand. To the right, a steep, eroded cliff face with distinct horizontal geological layers meets the beach. The ocean is a deep blue, with white foam from waves crashing against several dark, jagged rock formations (sea stacks) in the water. The sky is bright blue with scattered white clouds. In the far distance, a range of mountains is visible on the horizon.

PANORAMA

“Tronu Dema” telesailaren lehorreratze polemikoa

Game of Thrones edo Tronu Dema telesail ezagunak Zumaian grabatuko dituen eszenen prestaketari ekin diote. Horretarako Geoparke eremu babestuaren barruan dagoen Itzurun hondartza moldatu dute, eta besteak beste, harrizko horma bat suntsitu izanak herritarren haserrea piztu du (irudian Zumaiaiko Surf elkarteak antolatuko elkarretaratzea). “Zer ari gara saltzen? Zer galtzeko prest gaude turismoaren izenean?”, galderak hedatu dira egunotan, agintariek herriko ondarea babesteko baino, indarrak multinazionalaren etorrerak turismoari ekarriko dizkion onurak goraipatzeko jarri dituztelakoan.

Argazkia: Jon Arano

“Lehendakari izateko hautagai batek ez du euskaraz jakin beharrik, baina detaile bat litzateke”

Kirmen Uribe, La Ser irrati kate espainiarrean.

“Eta holako perlak esaten dituenak Eusko Jaurlaritzako adituen aholkularitza batzordean dago gainera! ‘Patetiko’ motz gelditzen da!”

Unai Villena.

“Nire elkartasun guztia ezagutzen ez dudanez eta ezagutu dudanez moduan ezagutu beharrik ez neukan Eibar taldeko bi jokalarien bideoko neskari. Neskak bideoa ez grabatzeko eskatu arren grabatu, bideoa ezabatu ez eta zabaltzeko atea irekita utzi duten bi jokalariek nazka ematen didate”

@AmagoiaGu

“Kontua da, matxoteek ez dutela uste ezer larririk egin dutenik; arazoa ‘filtrazioa’ izan dela.

Asier Sarasua (eibar.org)



Hassanna Aaliari errefuxiatu izaera aitortu dio Auzitegi Nazionalak

Axier Lopez

@axierL

Bost urteren ostean errefuxiatu izaera aitortu dio Hassanna Aalia ekintzaile sahararrari Espainiako Auzitegi Nazionalak eta beraz, kanporatzeko arriskuan egoteari utziko dio.

Espainiak asiloa ukatu zion 2015 hasieran, baina erabaki horren kontra CEAR-Euskadi errefuxiatuak laguntzeko taldeak jarritako errekurtsioa aintzat hartu du Auzitegi Nazionalak. “Oso prozesu zaila eta gogorra izan da, baina era berean oso polita, lagun, erakunde eta talde askok lagundu eta babestuta sentitu naizelako azken bost urte hauetan”, adierazi du Aaliak albistearen emateko Bilbon antolatu duten prentsaurrekoan.

Bost urteko ibilbide malkartsua

2010ean sahararrek antolatutako Gdeim Izik “duintasunaren kanpamentua” deitutakoan parte hartzeagatik bizi osorako kartzela zigorrera kondenatu zuten Aalia, beste 24 kiderekin batera. 2011n eman zuen Marokok atxilotzeko agindua. Egun haietan Euskal Herrian zegoen gaztea, eta bertan geratzeko erabakia hartu zuen.

Tribunal militarrek sententzia atera aurretik, 2012ko urtarrilean asilo politikoa eskatu zion Espainiari; hiru urte geroago iritsi zitzaion ezezkoa. 2015ko urrian atxilotu eta espediente zabaldu zioten; kanporatzeko arriskua berriz agertu zen. Hassanna Aalia kazetari sahararra Burgosen tren batean zihoala atzeman zuen Espainiako Poliziak eta hainbat orduz atxilotua egon ondoren zigor espediente zabaldu zioten.

“Egon, egon gara; kontua da ez digutela utzi protagonista izaten”

ZURIÑE RODRIGUEZ, EHU-KO IKERLARIA

Euskal Herriko gatazka armatuaz irakurketa feminista egitea da Susak abiatutako Lisipe bildumaren xedea. Lehen liburua aurkeztu dute Zuriñe Rodriguez eta Oihana Etxebarrietak: *Borroka armatua eta kartzelak*. Rodriguez *eusko gudariaren* iruditeriaz aritu da: “Maskulinoa, patriarkala, eta, are, misoginoa. Baina egon, egon izan dira emakumeak lubakietan ere. Gatazka deitzen dugun hori gizonen agertokia izan bada, arriskua badago bakea ere gizonen negoziatzeko, eurentzat soilik egiteko”. **2016-10-06**



AIACCIUKO ASANBLEAN KORSIKARREK
BAT EGIN DUTE ETA BOTEREA ESKURATU

ez eskuin

ez ezker

GIUSTIFICAZIONE
della
Rivoluzione
DI CORSICA

GENERALITATEAN KATALUNIARREK
BAT EGIN DUTE GEROA MARKATZEKO

ez eskuin

ez ezker

desconnexio

GASTEIZKO GOBERNUAN ZER EZ OTE
DUTE EUSKALDUNEK ASMATUKO
ELKARRERKIN EZ JOATEKO?

zaila daukagu!

Numeroek
ez dute
ematen

aitzakirik
ez dugu
...

laxssssai,
zer bait,
aurkituko dugu!

zoru etikoa?
zeharkatzen a?
Athletik-erregala?

EXTRA
TEGIA,
GUREA





Lana deslokalizatzen duten enpresak zigortuko ditu Arabak

Arabako Alea / Unai Brea

@ArabakoAlea / @unaibrea

Arabako lana deslokalizatu eta langileen kopurua %35 murrizten dituzten enpresak zigortuko ditu Aldundiak. Horrela adostu dute Arabako Aldundiko Ogasuneko Osoko Bilkuran. EH Bilduk 20 zuzenketa aurkeztu zizkion foru arauari, deslokalizazioaren definizioa foru gobernuaren esku geratzen baitzen. Aipatu definizio hau foru arauan bertan jasota egotea zen EH Bilduren helburua eta horrela egitea adostu dute bilkuran.

Horrela, deslokalizazioa izateko jarduera ekonomikoaren murrizketa esanguratsua eman behar da eta aurreko edo ondorengo hiru urteetan jarduera berdina beste leku batera eramatea. Horrez gain, langileen kopurua %35 murriztea izango da kontuan hartuko duten beste faktorea.

Hemendik aurrera, horrelako kasuak ematen direnean, enpresak jasotako diru-laguntzak itzuli behar izango ditu eta zortzi urtetan ez dute diru-laguntza publikoak jasotzeko aukerarik izango.

Akordiorik ez Bizkaiko zahar egoitzen gatazkan

Bestalde, bi asteko grebaren ostean konponbiderik gabe jarraitzen dute Bizkaiko

zahar etxeetan. Irailaren 21ean hasitako grebaren azken egunean, negozioazio mahaiaren inguruan jesarri dira ELA sindikatua eta sektoreko hiru patronalak (LARES, ELBE eta GESCA). Azken horiek konponbiderako egin duten proposamena “arduragabekeriatzat eta errespetu faltatzat” jo du ELAk. Sindikatuaren esanetan, patronalen proposamena onartuz gero langileek eroste ahalmena galduko lukete 2016an, eta %0,7 handitu 2017an. “Soldata bi urtean 6 euro ere ez litzateke hobetuko”, adierazi dute ohar bidez. Lanaldiak, berriz, bi orduko murrizketa izango luke urtean.

ELAk gogorarazi du aurten 32 greba egun egin dituztela guztira Bizkaiko adinekoen egoitzetan eta urtebete daramatela negozioazio saioetan. Testuinguru horretan, onartezina iritzi diote patronalek egindako eskaintzari: “Alde batera utzi dituzte funtsezko gaiak, esaterako, zuzeneko arretarako langile kopurua handitzeak ekarriko lituzkeen ratio eta lan-kargak”. Patronalak berak egindako azterketa batek agerian uzten du langile falta, bai eta horrek erabiltzaileei zer nolako kalteak dakartzkien ere, ELAren esanetan.

Azken negozioazio saioak kale egin eta gero, sindikatuak hurrengo mobilizazioei buruz erabakiko duela iragarri du.

EKONOMIAREN TALAIAN

Txabola batetik amets egin



Juan Mari Arregi

Olabeaga bilbotar auzoan, etxeetako aurrealde batean norbaitek hizki larriz idatzi du: *Soñar* (amets egin). Lehendik ere irakurrita nuen. Baina joan den astean deskubritu nuen hortik gertu txoko bat dagoela hiru txabolarekin, eta horietan “bizi” direla Boli Kosta, Ghana, Kamerun eta Senegalgo sei afrikar gazte. Haietako batek hara eraman ninduen, bere “etxea” erakusteko, harro. Ustekabean ezagutu nuen edukiontzi baten barruan prentsa papera biltzen ari zela, nik nire poltsa bota behar nuen.

Ogia, askatasuna eta paradisuaren bila, Mediterraneoko kostara pateran iritsi diren milaka etorkinetako batzuk dira. Paperik gabe bizi dira, poliziak noiz etorriko adi, ez baitaukate legezko lanik. Europar paradisuaren hobe egongo zirela egin zuten amets eta bizitza arriskuan jarri zuten. Bilbora iritsi ziren, eta ozta-ozta bizi dira papera eta bestelako materialak biltzen, egunerokoan iraun eta urrun utzitako familiari diru pixka bat bidali ahal izateko. Etorkizun hobe amesten dute, duintasunez bizitzea –eta ez txaboletan– ahalbidetuko dien lan bat aurkituko duten esperantzan. Gurekin batera bizitzearekin egiten dute amets. Amestea libre da, eta txabola baten barruan amets egiteak egonaldi miseralea leundu dezake.

Sistema kapitalista honek desberdintasuna, miseria, migrazioak eta gerra sortzen ditu, eta gazte hauen errealitatea horren isla da. Euren ametsak eta beste milaka migraziozaileenak (ekonomikoak nahiz politikoak) egia bihur daitezten, beste sistema bat eraiki behar dugu, giza duintasuna, berdintasuna, justizia... ardatz izango dituen. Baina bitartean, elkartasuna beharrezkoa da, gertuko erakundeena (udal, foru eta autonomikoak) eta norbanakoona.

Hormona sistema kaltetzen diguten 33 pozoi daramatzate fruitu eta barazkiek

ESPAINIAKO ESTATUA. Ekologistak Mar-txan elkarteak jakinarazi du Espainiako Es-tatuan herritarrek kontsumitzen dituzten fruitu eta barazkiek beren mamian daramatzatela gutxienez 33 disruptore endokrino, gizakiei gaixotasun larriak eragiten dizkigutenak (ugalkortasun galera, jaiotze-tiko malformazioak, diabetesa, obesitatea, immunitate sistemaren ahultzea, autis-moa, hiperaktibitatea eta zenbait minbi-zi, hala nola bular, prostata, barrabil edo tiroideetakoak). Hamar elikagai kutsatue-n taula ikusgarria ere argitaratu dute. Kontua da Europar Batasunak 1107/2009 zuzentarauan debekatu zuela disruptore hormonalak nekazaritzan erabiltzea, baina legea egin arren, hori errealitatean ezar-tzeko arautegi zehatza oraindik garatzeke dago. Nekazaritza biologikoan ekoiztutako produktuen kalitatea oso bestelakoa dela erakutsi du, berriro ere, azterketak. Nabar-mentzekoa da AECOSANek produktuen artean bildutako 2.384 laginetatik ekologi-koen artean hiruk baizik ez dutela erakutsi kimikoen arrastoren bat.

	POSTUA	ELIKAGAI	PESTIZIDAK GUZTIRA	EDC PESTIZIDEN KOPURUA (DISRUPTORE ENDOKRINOAK)
	1	Udareak	49	16
	2	Sagarrak	32	13
	3	Melokotoiak	16	9
	4	Laranjak	18	8
	5	Espinakak	16	8
	6	Pepinoak	17	7
	7	Azenarioak	15	7
	8	Tomateak	20	6
	9	Mahatsak	20	6
	10	Mandarinak	9	6

Hizkera sexista noiz darabilgun ohartzeko tresna

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

“Andaluziar bat eta haren emaztea ezagutu nituen”, “Arzallus eta Maialen ikusi ditut”, “neska batek bezala egiten duzu negar”... Komunikazio sexista darabilzu eta konturatu ere ez zara egin? Horri aurre egiteko gida atera berri du Steilas sindikatuak, bereziki irakasleei eta hezkuntza munduari zuzenduta.

Adibide ugari

Gizonak abizenaz izen-datzatzea, emakumeak izenez; ia beti gizonaz-koa aurretik jartzea (“seme-alaba, aitona-a-mona...”); emakumea 2. mailako agertzea (norbaiten ama, emaz-tea...); adin berarekin, bata ‘gizon’ izendatzea eta bestea ‘neska’...


Liburuekin ere, adi

Historiako klaseetan ere, kontuz: “Frantziako iraultzari esker sufragio unibertsala ezarri zen” edo “atenastarrek bozkatuz aukeratzen zituzten ordezkioak” esatea okerra da, emakumeek ez baitzuten boto esku-biderik ez kasu batean, ez bestean.

Hitzetatik harago

Erabiltzen dugun tonua, intonazioa, elkarrekintza, jarrera eta irudi bidezko har-tu-eman ere aipatzen ditu Komunikazio Inkusiborako Gidak, hitzetatik harago eman baitaiteke dis-kriminazioa gure arte-ko komunikazioan.

ZINEMA



32

film lehiatuko dira urriaren 16tik 22ra, Lekeitioko Euskal Zine Bileran: 11 lan profesional eta 21 amateur.

120

emakume profesionalak eta 20tik gora kontratatzailek eman dute jada izena (H)emen Er(e) ikus-entzunezkoko emakumeen elkartean. Euskal Zine Bileran mahai-ingurua egingo du elkarteak.



ABORTUA EZTABAIDAGAI POLONIAN

Milaka emakumek Polonian egindako manifestazioaren ondorioz, herrialdeko Gobernuak atzera egin du abortua guztiz debekatzeko asmoarekin. Dena den, Europar Batasuneko lege murriztailuenetakoa du Poloniak gaur egun.



ETXE OKUPATUA HUSTU DUTE IRUÑEAN

Iruñean etxe bat okupatzeagatik hiru gazte atxilotu eta hainbat zauritu eragin dituzte udaltzainek. Atxilotuak karguekin utzi dituzte aske, autoritatearen aurka eraso egitea egotzita. Udaltzaingoaren jarduna “neurrigabea” izan dela adierazi du EH Bilduk.



HERRI ELKARGOA

Herri Elkargoaren aurkakoak bi aldiz saiatu dira ekimena oztopatzen maiatzaz geroztik. Alta, helegite administratibo biek huts egin dute eta Paueko Administrazio Auzitegiak gibelera bota berri du azken helegitea.

Nork hil zuen Little, nagusiei eta gerrari aurre egiten zien sindikalista?



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Duela 99 urte, 1917ko abuztuaren 1ean, sei sikariok farola batean urkatu utzi zuten AEBetako obreroen lider borrokarienetako bat, Frank Little. Langilerik txiroena bezain xume bizi eta bidaiatzen zuen sindikalista, jendea berotzen zuen konpainia handiek ezarritako bizi baldintzen kontra oldartu eta AEBetako gizon gazteak I. Mundu Gerran hiltzea eragotzi zezaten. Galdu egin zuen.



Jean Jaurès asko aipatu da I. Mundu Gerraren (1914-1918) mende hurrena ospatzen den garaiotan. Frantziako lehendakari sozialista –geroztik jakin denez– gerra nahi zuten oligarka eta jeneralek urrundik kontrolatutako nazionalista frantses batek tiroka hil zuen 1914ko uztailaren 31n. Jaurès ahalegintzen ari zen nola edo hala saihesten hiru egun lehenago hasitako gerra hura, artean ikusten zituen aukerak.

Europar ezkerreko mugimendu iraultzaileak, politikoak baina batik bat sindikalak, indartsuak ziren XX. mende hasiera hartan eta beren liderrek usaintzen zuten zer nolako triskantza eragin zezakeen industria handiak eta militarrek sustatzen ari ziren gerrak soldadu joatera behartutako langile gazteen artean. Besterik da gerraren zurrumbiloko azkenean nola bereganatu zuen ezkerrearen gehiengoa.

Itsasoz beste aldean ere, AEBetan, kontuotaz oroitu dira batzuk Frank Littleren istorio zirraragarriarekin. Mendealdeko langileak, laborari handien etxaldeetan ari ziren jernalariak bezala industriako eta meategietakoak, bizi baldintza duinen alde eta gerrara joatearen kontra mobilizatu zituen eskale itxurako lider sindikal aiantzia.

1917ko abuztuaren 1ean, Montanako Butte herrian ihauteriz moztutako bost gizon iritsi ziren goizaldeko hiruretan Nora Byrn anderearen apopilo etxera. 38 urteko gizon gazteari ez zioten janzteko ere aukerarik eman. Kolpeka

iratzarririk, seigarren hiltzailea txofer zeukan autoraino eraman zuten, han buru hezurra hautsi arte jipoitzeko. Autoaren ipurdiari sokaz lotuta karrikan behera arrastan eramanda, trenbide ondoko zutoin batean zintzilikatu zuten.

Prentsak ez zuen hil ostean ere erruki handiz tratatu: “Jendeen xaxatzailea etxetik atera eta hil dute moztutuek”, “Soldaduei ‘eskirol uniformedunak’ deitu zien gizona urkatu egin dute”... Hala ere, milaka herritar azaldu zen Littleren hiletetara Butteko kaleetan.

Ia bi hilabete lehenago istripu itzela gertatu zen Butten: 168 meatzari hil ziren Granite Mountaineko zuloko leherketan. Anaconda konpainiak –handienetakoa AEBetako meatzegintza-koen artean– Butten zeuzkan 14.000 obreroak greban hasita, astebeteren buruan heldu zen bertara Little. “Dinamita kutxa hartara –idatzi du Hunter Paulik *Montana Standard* egunkarian abuztu honetan– iritsi zen Frank Little bere izter hautsiarekin, soinean ez zeramala kapelua, ahoko keinu berezia eta kristalezko begia beste apaingarririk”.

Zerbaitegatik deitzen zioten Butte herriari *Gibraltar*. Sona handia zuten hango sindikatuen indarrak eta kemenak. 1914an meatzari iraultzaileek dinamitz lehertu zuten Butteko sindikatu kontserbadorearen egoitza, Anaconda Copper Mining Companyko ugazaben aurrean amore emateagatik.

Hilabete gutxiren buruan hasi zen I. Mundu Gerra. Herrialde gehienetan sin-

dikatuek eta ezkerreko mugimenduek hautatu behar izan zuten, edo agintariek gerran sartzeko hautuan lagundu edo gerrari aurre egin langile mugimenduak hasieran aldarrikatu zuen moduan. Europar laster makurtu ziren gerrazaleen aginduetara, gerraren kontra aritzea traiziotzat zigortzen baitzen.

AEBetatik urrun zen hasieran gerra. Baina 1917ko apirilean bidali zituzten lehenbiziko soldadu *yankiak* Frantziako lubakietara, britainiarren eskaria eta Alemaniaren indar handiegia geldiarazi beharra argudiatuta. Ekainean, gerrara joan behar eta nahi eza batetik, bizi baldintza latzak bestetik, meategiko hondamendia azkenik, ez zen giro Butteko meatzariekin. Haiengana heldu zen lider gogorra ere txantxetan ibiltzeko gizona ez zen.

Gerra, kapitalisten odol festa hori

Kuakero –komunitate erlijioso protestantea, hierarkiei bezala gerrari uko egiten diona– familia batean sortua, erdi txerokia jatorriz, oso gazterik meatzari hasita sartu zen IWW Industriako Munduko Langileak sindikatu. Sozialistak, anarkistak eta marxistak elkarrekin zeuden bertan. IWWko buru eta intelektual gehienak Boston inguruetan egon arren, AEBetako ekialdean, Little mendealdeko herri, hiri eta estatuetan hasi zen langileak errekrutatzen.

Fabrika handietatik urrun, Littlek mitinak ematen zizkien fruituak biltzen zituzten jernalariei, baso-mutilei, meatza-



Argazki handia, Frank Littleren geratzen den bakarra. Txikian, haren ilotza Butteko gorputegian; belauetako azal harrotuek erakusten dute arrastan eraman zutela. Hiltzaileak sekula ziur identifikatu ez dituzten arren, susmagarri nagusien izenak jakinak dira. Tartean aipatu zen Dashiell Hammett idazlearena. Pinkerton detektibe agentzian arituz, Hammetti ere eskaini zioten dirua Little hiltzeagatik; ez zuen parte hartu, baina eskaini izanak berak zamatatu omen zuen bizi osoan gero antikomunisten sorgin-ehizak zanpatutako idazlea.

riei, petrolio putzuetako zulatzaileei...

Ugazabek bidalitako matoi, guarda eta detektibeei aurre egiteko, Adierazpen Askatasunaren Mugimendua –*Free Speech Movement*– abiatu zuten sindikatuek. Langileen lan eta bizi baldintza mizeriazkoak salatu eta haiei borrokarako deia egiteko hitzaldiak antolatu zituzten edozein kale, plaza eta ataritan.

Little eta bere lagunak langileen arteko prekarioen antolatu zituzten, bate-tik bestera enplegu finkorik gabe oinez eta trenetan zebiltzan *hobo* jendeak. Milioi erdi baino gehiago ziren urte haie-tan bizkarrean zorroa hartuta zebiltza-nak, ez inondik ere eskaleak, behargin izorratuak baino. Alkohola debekatu, kanpalekuak komun eta gutxieneko zer-bitzuz osatu... “Eta inportanteena zena: gizarteak baztertutako gizonak adieraz-pen askatasunezko ekintzetara bideratu

zituen Littlek”, idatzi du haren biografia idatzi duen Arnold Steadek.

Are famatuago egin zuten grebek. IWWko beste buruzagi batzuek masa sindikalgintza hobesten bazuten, Littlek gakoa greban ikusten zuen: “IWW beti greban dago”, maite zuen esatea. Sindikatuko beste buruzagi batzuekiko talka gogortu zen gerra hasi zenean.

AEBak gerran sartzearen kontra ere grebak zabalduz borrokatu nahi zuen. “Nahiago dut fusilatze pelotoi baten aurrean jartzea”, erantzun omen zien gerraren kontrako kanpainan amore ematea proposatu ziotenei. Gobernuak gizartea odolusterako mobilizatzean nazionalismoa baliatuz, giroa gaizto-tzen ari baitzen IWW sindikatuaren eta oro har sozialista *yankien* kontra.

Ekaineko istripuaren ostean Buttera heldurik, Littlek langileei eskatu zien

borroka ugazaben kontra egiteko, ez alemanen kontra. Lekuko hedabideek traidore hura jipoitzeko eskatzen zieten agintariei. Eta abuztuaren 1eko goizaldean iritsi zen krimena. “Besteok ere ikasi, lehen eta azken abisua” idatzirik zintzilikatu zioten Littleren hilotzari.

Jane Little Botkin ari da liburu bat bukatzen bere birraitonaren anaiaz. Familian ez du Franken oroitzapenik aurkitu, halako beldurra sartu zieten agintariek traidore eta espiatzat hartutako disidenteentz familietakoei. Liderraren argazki guztiak erre zituzten, haren izena tabu zen familian bertan. AEBetan ezkerreko nork entzun du Frank Little?

Janerentzako, Anacondak agindu zuen Frank hiltzea kapitalistentzat arrisku-tsua zelako, eta hiltzeko enkargua hartu zuten sikarioek gorrotatzen zuten gerraren kontrako giroa sortzeagatik. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Nerea Pérez Ibarrola, historialaria

«Egun badirudi ez dugula gauzak aldatzeko konfiantzarik»

Auzoetan eta fabriketan garatutako langile-klase nortasunak mundua zertxobait aldatzeko indarra bildu zueneko garaiaz mintzo zaigu ikerlaria.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Langileen mugimendua azertu duzu Iruñerrian. Zergatik sakondu duzu gero emakumeen egitekoan?

Nire tesian ez nion gai horri bereziki erreparatu eta gero pentsatu nuen zergatik ez nuen hori egin. 50 elkarrizketa egin nituen tesirako eta horietarik soilik bost emakumeei. Etxetik kanpo lanean ari ziren emakumeak orain baino askoz ere gutxiago zirela eta langile mugimendu antolatuetan oso gutxi zeudela egia da, baina ulertu behar da langileen borrokan emakumeek parte hartzeko modu desberdinak izan zituztela. Hala-ko mugimenduetan parte hartzeko ez da beharrezkoa Comisiones Obreraseko lider nabarmendua izatea. Hari horri tiraka hasi nintzen ikertzen eta ikusi nuen emakumeen egitekoa oso garrantzitsua izan zela auzoetan. Langileen mugimenduetan baino gehiago auzoko aldarrikapenetan eta mugimenduetan aritzen ziren emakumeak. Zergatik pentsatzen dugu askoz ere garrantzitsuagoa dela greban dagoen gizona, berak kobratzen ez duen bitartean familia bere gain hartzen duen emakumea baino? Edo meategiaren aho zulora bazka-

ria eramaten duen emakumea baino? Zergatik ematen diegu protagonismo gehiago parte-hartze modu batzuei besteak ere funtsezkoak badira? Emakumeen lana ezinbestekoa zen langileak hor egoteko eta grebak iraunarazteko. Eta beste galdera bat, funtzio hori horren garrantzitsua baldin bada, zergatik egin dute beti emakumeek?

Nola sortu zen langile nortasuna Iruñerrian?

50eko hamarkadan jende asko etorri zen Nafarroako herrietatik Iruñera. Hiri industrializatu ahala, Txantrea eta Arrotxapea bezalako kanpo-auzoak hazten hasi ziren. Langile gehienak metalaren industrian eta automobilgintzan aritzen ziren. Auzoa ez ezik, errealitate sozioekonomiko berbera partekatzen zuten, baita bizimodua ere, eta horrek denak lagundu zuen gizarte-sare batzuk eta langile-nortasun bat sor zitezen.

Harreman sareak sortu ziren hainbat esparrutan eta ideia trukeak izan ziren haien artean. Horri gehitu behar diogu 60ko hamarkadan Andaluziatik eta beste toki batzuetatik etorritako emigran-

teek egindako ekarpena. Horietako asko errepresio latza jasandakoak ziren eta bazekarten langile erakundeekiko nolabaiteko lotura. Frankismoaren aurka-ko garai eferbeszenteetan langile talde horiek beren nortasuna definitzen joan ziren.

Zu txantrearra zara. Auzo komunitateen sorrera aztertzerakoan Txantrea hautatu zenuen adibidetzat, zergatik?

Txantrea oso eredu ona delako. Langileek egindako esparru bat da. Oso interesgarria da aztertzea bertako bizimodua, bertako harremanak nola sortu ziren. Nekazaritza mundutik zetorren jendeak bizimodu komunitarioa sortu zuen. Auzolana edo elkartasuna bezalako baloreak oso barneratuta zeuzkaten.

Auzoaren eraikuntza prozesua oso berezia izan zen. Hemen biziko ziren langileak beraiek hasi ziren etxeak altxatzen, 50eko hamarkadan. Haiek eraiki zuten auzoa eta auzo bizitza. Hor ikusten da nola hasi ziren sortzen harremanak eta nola zabaltu ziren auzo bizitzako esparru guztietara. Elkartasuna mantendu zen eta hurrengo belaunaldiei hori



Nerea Pérez Ibarrola

1984, Iruñea

Historian lizentziaduna EHUn. Aurten doktoretza lortu du NUPen *Langileria berri baten eraketa. Iruñerria 1956-1976* tesiarekin. NUPeko Historia eta Ekonomia ikerketa taldeko partaidea eta Gerónimo de Uztáriz Historia Ekonomiko eta Sozialaren Institutuko idazkaria eta zuzendaritza batzordeko kidea da. NUPen ikerlari eta irakasle aritzeaz batera, Iruñeko Udalak zabaldutako Frankismoaren errepresioari buruzko Oroimen Historikoaren informazio bulegoko lan taldeko kidea da.

transmititu zieten balore positibo bezala. Harro sentitzen ziren haiek sortutako auzoaz. Etxeaz gain harreman esparruak eta sareak eraiki zituzten. Ez da kasualitatea auzoa sortu eta denbora gutxira peña bat irekitzea, Iruñeko Alde Zaharretik kanpo sortu zen lehen peña, hain zuzen ere.

Francisco Franco patronatuak Iruñeko hainbat eraikuntza enpresarekin hitzarmenak zituen haien langileek haien etxeak eraiki zituzten. Lan jarduna bukatutakoan ordu batzuk gehiago aritzen ziren egunero haien etxeak egiteko. Patronatuak materialak, tresnak, planoak eta lan teknikoa jartzen zuen eta langileek eskulana. Enpresaka eta taldeka banatu ziren kaleak. Etxe guztiak denen artean egiten zituzten eta gero parte-hartzaileen artean zozkatu. Horrela ziurtatzen zuten etxe guztiak berdinak izango zirela. Gerora, eraikuntzako langileak ez zirenek ere aukera izan zuten sistema horretan parte hartzeko. Geroago etorri ziren patronatuak berak eginitako etxeak, egungo babes ofizialekoen parekoak. Oso esperientzia kolektibo interesgarria da. Horrela sortu ziren populazio homogeneoko guneak, langile auzoak.

Hortik datorkio Txantreari gaur egungo fama?

Nik esango nuke baietz. Oso iragan polita eta erromantikoa da. Garai horretatik datoz harremanak egiteko moduak eta baloreak. Gehienek lantegi beretan egiten zuten lan, eta fabrikaren eta auzoaren artean norabide biko harremanak zeuden.

Nolakoa izan zen Iruñerriko langileen mugimendua frankismoaren garaian?

Oso aktiboa. 1958ko hitzarmen kolektiboaren legeak ahalbidetu zuen langileak elkartzea haien lan baldintzak hobetzeko. 60ko hamarkadan, langile mugimendu asko sortu ziren. Haien artean jite kristaukoek garrantzi handia izan zuten. Justizia soziala bezalako kontzeptuak zirkulazioan jarri zituzten. Behetik sortutako mugimenduak izan ziren Comisiones Obreras eta bestelako langileen antolamendu handien sorrera.

Frankismo amaieran mugimendua oso garrantzitsua izan zen Iruñerrian. 1973ko Motor Ibéricako langileekiko elkartasuna edo 1974ko abenduaren 11ko greba izugarriak izan ziren.





1975ean Potasaseko meatzarien itxialdia ere mugarrria izan zen. Greba ikargarri luzeak egin ziren: Eaton 47 egunez egon ziren greban eta Imenasan 45, adibidez. Kontuan hartuta zein populazio txikia zuen Nafarroak eta zein berandu hasi zen hemen industrializazioa, oso interesgarria suertatzen da fenomeno hori.

Zergatik zen horren aktiboa?

Hasieran auzoak giltzarri izan ziren langileria trinko bat finkatzeko Iruñerrian. Ondoren, 70eko hamarkadan, aurrez gertatu ziren langile-mugimenduen segida fabrikak izan ziren. Protesten eta aldarrikapenen egiazko motorra. Fabriketan batzordeak sortzeak, hitzarmen kolektiboak negoziatzeak, Sindikatu Bertikalaren egituren barrutik hainbat langilek egin zuten lanak eta gatazkek berek aukerak eman zituzten, eta langileek aukera horiek baliatu zituzten elkarrekin lan egiteko eta aritzeko.

Iruñeko fabriken barruan, antolamendu-eredu berri eta nabarmen bat sortu zen, gero Nafarroa osora zabaltzeko eta diktaduraren azken urteetako gertakariak esanguratsuenetako batzuetan gauzatu zena.

Langile gehienak antifrankistak ziren?

Antifrankismoa izan zen langile-nortasunaren osagai bat. Langileen ustea zen haien aldarrikapen sozioekonomikoek ez zeukatela etorkizunik diktadurak irauten zuen bitartean. Klase-nortasuna eta izaera antifrankista bat zen. Kapitalismoari zilegitasuna kendu eta alde batean zein bestean alternatibak bulatzatu nahi zituzten. Identitatea sortzeko prozesu hartan, langileak jabetu ziren beren gaitasun eraldatzaileaz, eta horregatik diktaduraren azken urteak eta trantsizioa gizartearen eraldatzeko aukera handi moduan bizi izan zituzten.

Gaur egungo errealitatearekin alderatuta zer ondorioetara iritsi zara?

Garai historiko desberdinak dira. Pentsatu behar dugu urte haietako langileak gai izan zirela diktaduran, erreprezio bortitza jasan ondoren, esparruak bereganatzeko eta sortzeko, eta ekin tzak sustatzeko. Egun badirudi ez dugula gauzak aldatzeko konfiantzarik. Orduan bazegoen. Ikusi beharko genuke nolako borroka motak abiatzen ahal ditugun, nahiz eta ez den erraza. Baina

lehen posible izan bazen, zergatik ez orain? Borroka gogor egin zelako lortu ziren gauzak.

Frankismoko testigantzak jasotzeko Iruñean zabaltzeko duten bulegoan ari zara lanean. Zein da helburua?

Udalak Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerlari talde baten laguntzarekin abiatu du ekimena. Helburua da Iruñean errepresaliatuak izan zirenei buruzko ahalik eta datu gehien biltzea, eta Argentinan jarria dagoen Frankismoaren delituen aurkako kereilan parte hartzeko erabiltzea.

Maiatzetik informazioa, testigantzak eta dokumentazioa biltzen aritu gara. Jendearentzako erreferentzia puntu bat izatea nahi genuen, informazioa emateko, kezkak adierazteko eta barrenak askatzeko toki bat. Jende asko etorri da informazioa eskatzera eta ematera.

Zergatik horren borrokalari

“Tesian ez nuen egin nahi langileen mugimenduen datu bilketa hutsa. Lan oso onak eginak zeuden alde aurretik. Nik jakin nahi nuen zergatik iristen diren Nafarroako langileak horren borrokalari izatera, zerk eraman zituen horren gatazka gogorrak burutzera frankismo amaieran. Nola sortu zen klase kontzientzia zuen langileria”.

Auzoetako baloreak

“Auzoetan sortu ziren gizarte-sareak (kirol elkarteak, gizarte guneeak eta aisialdirako guneeak) eta mugimendu apostoliko laikoek langile nortasun komun bat sortzen lagundu zuten. Besteak beste, elkartasuna, senidetasuna, kolektibotasuna, berdintasuna, injustiziaren aurkako matxinatzea eta antikapitalismoa ziren oinarria”.



“Iruñeko Txantrea auzoak oso iragan polita eta erromantikoa du”

“Zergatik pentsatzen dugu askoz ere garrantzitsuagoa dela greban dagoen gizona, berak kobratzen ez duen bitartean familia bere gain hartzen duen emakumea baino?”

Terapeutikoa, bide batez?

Nik uste dut baietz. Jende askok entzuna izateko beharra dauka. Isiltasun handia izan da urte askoan eta memoria berreskuratzearen aldeko taldeek lan izugarria egin duten arren, oraindik behar hori dago. Erakunde batek babestutako proiektu batean beren familiaren historia kontatzeko aukera izatea eskertzen du jendeak.

Hala ere, batzuek ez dute bere burua errepresaliatutzat jotzen, oso barnera-

tuta daukatelako garaia horrelakoa zela eta horrela zela bizitza. Baina fusilamenduez eta kartzelaratzeez gain errepresio forma asko daude, oso sotilak, errepresiotzat maiz hartzen ez direnak.

Adibidez?

Errepresio sozioekonomikoa. Langileak kaleratzea greba egiteagatik edo lanik ez aurkitzea errepublikazale edo errepresaliatu baten seme edo alaba izateagatik. Datuak hildakoen kopuruetan gelditzen dira askotan, baina hildakoen familiek aurrera jarraitu zuten eta oso bizimodu gogorrak izan zituzten. Jende asko miserian gelditu zen. Guri, adibidez, jende askok esan digu ez dutela inoiz ikusi haien amona irribarrez edo ama beti triste gogoratzen dutela. Historia batzuk aditzea oso gogorra da.

Gerraondoko errepresioa lehen leerroan bizi izan zutenak hiltzen ari dira, horregatik oso garrantzitsua da lan hau lehenbailehen egitea.

Ereinotz korroa kentzen ari dira Diputazio-tik, Mola eta Sanjurjo laster aterako dituzte hobietatik... pil-pilean dago gaia.

Ikustekoa da nola gaiak hautsak harrotzen dituen oraindik. Horrek esan nahi du gauzak aldatzen ari direla, baina jarri batzuk ez horrenbeste. Gaia ez dago oraindik normalizatuta. ■



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

www.eskulanen-etxea.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5 · Donostia · 943 420 205

Aliziaren ispilua urratu



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Playmobil eta Planeta de Agosti-nik *Historiaren abentura* panpina bilduma plazaratu zuten: 74 figura historikoak, guzti-guztiak, gizonezkoak ziren. Albistea hedatu eta Internet bidez jasotako sinadura eta kexen presioari erantzun behar izan zieten bi enpresek, emakumezkoen figurak gehituko zituztela aginduz. *Pikarako* facebook orrialdean guztion artean zerrenda bat egitea proposatu genuen, eta izen pila bat bota genuen: Ada Lovelace, Mary Shelley, Rosalind Franklin, Emma Goldman, Safo de Lesbos, Mary Wollstonecraft, Olimpia de Gouges, Aspasia de Mileto, Hildegarda de Bingen, Jane Austen...

Sandra Álvarez *Negra cubana* blogariak komentario bat utzi zuen horren harian: "Orain zenbatu zenbat emakume txuri aipatu dituzuen eta zein presentzia eskasa daukagun emakume beltz eta indigenek zuen hautaketan". Egia borobila, apenas Angela Davis, Rigoberta Menchú eta Wangari Matai zeuden zerrenda inprobisatu horretan.

Aurreko artikuluan "burkini" delakoaren polemikan erortzeaz damutu nintzela kontatu nizuen eta hortik abiatuz, feminismo deskolonialaren beharraz apur bat aritu nintzen. María Reimóndez itzultzaile eta aktibista galegoaren *Rachar o espello de Alicia: por un feminismo decolonial* artikulua argitaratu dugu *Pikaran*. Hain ondo eta sakon azaltzen duenez behar hori, bere hausnarketak ekarri nahi dizkizuet. *Alizia herrialde miresgarrian* ipuinaren metafora erabiltzen du, mendebaldeko feministok beste testuinguruetako emakumeengana hurbiltzeko dugun era kritikatzeko: "Bera, Alizia, erraldoia eta egia borobilaren jabe, ezagutzen ez duen paisaia baten erdian, bere testuinguru txuri eta erosotik interpretatzen saiatzen da".

Mendebaldea
feminismoaren eta giza
eskubideen abangoardia
dela esatea kolonialista
dela gogorarazi nahi dut.
Izan ere, eta esaterako,
queer mugimendua
edota feminismo beltzak
Ameriketako Estatu
Batuetan jaio zirela
entzuten dudanean, "a ze
kasualitatea, dena AEBetan
sortzen da?" pentsatzen dut

Feminismoan "interseksionalitate" hitza modan jarri den arren, Reimóndezek "beste" emakumeen esperientziak interpretatzeko bi joera identifikatzen

ditu. Alde batetik, euren borrokak txalotu baina aldi berean exotizatu: Indiako sari arrosaren aktibistak mirensten ditugunean, esaterako. Bestetik, nagusitasun jarrera etnozentrikoa: Afrikako emakume gixajoei bizi dituzten indarkeria "basatiak" salatzen ditugu, neurri handian kolonialismoaren aztar-nak direla azaldu gabe. Bi kasuetan, ez dugu "beste" esperientzietatik gurera irakaspen handirik ekartzen:

"Feminismoak (eta giza eskubideak) mendebaleko sorkuntza direla esatea ez da soilik kaltegarria, faltsua baizik. Guk ditugun eskubide asko, esaterako edateko ura edo sendagai generikoak, Hegoaldeko landa mugimenduei esker lortu dira", gaineratzen du Reimóndezek.

Bere artikulua irakurri ostean, honako konpromisoak berretsi ditut:

- Irakurtzen ditudan pentsalari feminista denak, txuriak eta Iparraldekoak, ez dira berme.

- "Besteen" zapalkuntzei buruz iritzia eman ordez, euren diskurtsoetan eta borroketan sakontzea.

- Mendebaldea feminismoaren eta giza eskubideen abangoardia dela esatea kolonialista dela gogoraraztea. Esaterako, queer mugimendua edota feminismo beltzak Ameriketako Estatu Batuetan jaio zirela entzuten dudanean, "a ze casualitatea, dena AEBetan sortzen da?" pentsatzen dut.

- Feminismoa gainerako emakumeak ebanjelizatu behar dituen abangoardiatzat hartu ordez, pertsona anitzen jakituria eta praktikez aberasten den mugimendu iraultzailetzat hartzen ulertzea eta praktikatzeta.

Laburbilduz, María Reimóndezek Mendebaleko feminismoari eskatzen dizkien bira nik neuk ere egunerokoan egin: Alizia erraldoi eta trakets hori bezala jokatzeari utzi. ■

Objektibitatearen faltsukeriaz

Zer ikasi dugu Pierre Bourdieu soziologoarengandik, bereizte kontzeptua ez bada? Aski dugu bulegokraziaren korridoreetan paseo baten bidez atez ateko itzulia eman, jakiteko instituzio publikoek bereizte kontzeptuak gorpuzten dituztela. Objektibitateak sistemaren erreproduzioak irudikatzen dizkigu: holako aita halako seme-alaba. Instituzio publikoetan sartzeko estrategiak martxan ezarri behar dira, baina ibilbide intelektuala ez da nahikoa. Ez da nahikoa argi izatea, instituzio publikoetan sartzeko ez dela nahiko ikasle ona izatea. Beraz, seme-alabei ez diegu gezurrik kontatu nahi. Aldiz, gezurrak esan ordez, Bourdieuk utzi zizkigun azterna intelektuala irakatsi behar dizkiegula uste dut.

Instituzio publikoetan sartzeko garrantzitsuena sare batean parte hartzea da. Sartu baino lehen, barnean senideak behar dira, odolekoak edota senide ideologiko politikoak. Sail batzuetan feminista izan behar da, beste batzuetan abertzale. Beste zenbaitetan ongi ikusia da esatea ez zarela politizatu. Fakultatean irakasle izateko fakultatean ikasten ez diren kodeak barneratu behar dira. Kode horiek familian ikasten dira. Ahapeka ikasten dira. Mikro-zirkulu pribatuetan. Determinismo eta



Eric Dicharry
ANTROPOLOGOA

Instituzio publikoetan sartzeko garrantzitsuena, sare batean parte hartzea da. Sartu baino lehen, barnean senideak behar dira, odolekoak edota senide ideologiko politikoak

bereizte prozesuak ulertu ez dituztenentzat hitz bat badago: inozoa. Instituzioetako agintariei edota boterean daudenei kritikak zuzenki eta frontalki egiten dizkietenei inozo deitzen diete. Erreproduzioen mekanismoak ondo barneratu dituztenek gauza bat ikasi dute: kritika frontalak egiteko sistema-

ren zati bat izatea itxaron behar dela. "Kenezina" izaten itxaron behar da. Bizitza guztirako estatuaren funtzionarioa edota instituzio baten funtzionario aldaezina izaten. Lanbide finko eta babestu batean izaten.

Instituzio publikoen sartzekak edota deialdi publikoak maskarada beretik datoz. Haien legitimazio subjektiboak objektiboak bilaka daitezzen aditu batzuen izenak behar dituzte. Botere edota instituzioetatik jadanik baieztatuak izan diren aditu batzuen izenak. Sistemaren erreprodukzioa hortik hasten da. Artista, idazle, film egile, sortzaile, kultur funtzionario, diru publikoari esker *perfusiatsuak* izan zirenetik hasten da. Legitimatua beraz, arrisku gabe-koak, susmagarri ezinak. Boterearekin fidelak.

Hautaketa prozesua publizitate eslogan batean gorpuzten da. *Canada dry* delakoan bezala. Kanpotik ikusita, alkohola dirudi baina alkoholik ez duen edaria da. Instituzioek martxan ezartzen dituzte deialdi publikoak edota sartzeko konkurtsoak kanpotik objektibitatearen itxura dute, baina barnetik ez. Objektiboak izango balira bezala zabaltzen dira, webguneetan salgai izaten jarraitzen dute, gizarteari saldu behar baitzaizkio. ■

Xilaba

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO

BERTSULARI

XAPELKETA

2016

www.bertsozale.eus/xilaba

IZTURITZE

Herriko gelan

Urriaren 15ean, 17:00etan

Aurkezlea: Iban Falxa



ARGIA



Maddalen
Arzallus



Amets
Arzallus



Eneritz
Zabaleta



Ramuntxo
Christy



Nahia
Sasco



Maddi
Sarasua

Lurrez ondua



Aingeru Epaltza
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA
@AEpaltza

J oan Mari Irigoien *Poliedroaren hostoak* nobelan ikasi genuen gure lehengoak lur zirela edo haize zirela. Ikasi, orobat, gaur egun, gehienon izate mestizoak bi elementuei egiten diela leku, eta bakoitzak batetik edo bertzetik duen neurriak hein berean egiten gaituela gu. Euskal literaturan, luzaz biak nahasian ibili ondoren, haizea nagusitzen ari zaio aspaldi honetan lurrari. Patziku Perurena salbuespen.

Perurenaren lurralde literarioak ez du izenik, harako Yoknapatawpha edo Obaba bezalakorik. Patzikuk ez du galtzarbetik atera bere idazlarenarako eszenatokia. Arantzako edo Lesakako marraz baimenik eskatu gabe zeharkatzen ditu, eta era berean sarbidea aurkitzen Oiartzunearaino. Ereñozu ez zaio arrotz, Berastegi ere ez. Uitziko gaina aise gaingitzen du, eta ez da lotsa Basaburuan edo Malerrekan barneratzeko. Muga lausoak ditu, beraz, baina bihotz trinkoa: Goizuetan sorterriak eta Leitza bizilekuak partekatzen duten sistema planetarioa; sateliteak barne, Uitz, Gorriti, Areso, Ezkurra, Arano.

Argi gelditu da: Patziku ez da Faulkner ez Atxaga, ezta nahi ere. Ez du fikziozko izenik asmatu nahi izan bere lanak tokitzeko, bertzeak bertze uko egiten baitio fikzioari. Irudimenaren bahetik pasatu gabeko istorioak maite ditu Perurenak, egiazki gertatuak, jende apalaren ahotik jasoak. Patzikuren edozein lan irakurtzea aski, ohartzeko

noraino bizi duen jende zaharraren mintzoaren lilurak. Entzunari, gero, berrespina edo zigilua ematen dio udal eta eliz artxiboetako paper zaharrez baliatuta. Haren kasuan, idazlea erkatzailea da, fede emaila, testigantza kontraesankorren kaosaren antolatzailea. Bertze baten eskutan, ikerketa antropologiko hotza litzateke emaitza. Perurenarenean, fabulen gisara irakurtzen da. Batez ere, irakurlea egilearen lurraldekoa ez denean.

Patzikuren hautua ez da arriskurik gabea. Haren liburuetan batek baino gehiagok ikasi izanzen zuen aitona mozkorra zuela, izeba zaharra haur batez erditu zela gordean edo birraitonaren anaiak auzokoa garbitu zuela ukaldika. Memoria historikoaren beharra aldarrikatzen badugu ere, denek ez dute maite etxeko kontu ilunak horrela argiturik ikustea.

Leitzako errege-erreginak ondu zuen bezala, ahoan bilorik gabe idatzi du Perurenak *Hilen xar-ma*, arestian aipatu lurraldean XIX. eta XX. mendeetan gertatutako heriotza bortitzen kronika. 1976koa du azkena. Hala ere, liburuaren hondar solasean (*Epilogo modura, aizkorari oliadura*), ahotan hartzen du Jose Jabier Mujika UPNko zinegotziaren hilketak, 2001ekoa izan arren. Lerro horiek ere lagun guti ekarri izanzen zioten bere herrian. Ingurukoen mutur-okerrek ez ahal diote inoiz luma uzkurtuko Patzikuri. ■

Itzal oldeak



Itxaro Borda
IDAZLEA

U daran, *Erein* argitaletxeak plazaratu Juan Gorostidiren *Zazpigarren heriotza* oroitzapen liburuaren irakurtzeko beta eduki dut, Baionako bestetan ausatu, *Aquarius* telesaila ikusi eta Orabidea uhergarritik oinez ibili bitartean. Behialako gure sasietako armada itzal olde goseti bilakatu da eta dagoeneko ez dakigu piztiarekin zer egin. Gertatutakoa ukatzen jarraitzen baldin badugu, akabo guretzat.

Besterik ez dio, lerro artean, Juan Gorostidirenteriarak. Bere gaztaro iraultzaileko memoriak eskaintzen dizkigu, trantsizio garai polemiko hartakoak, interesgarriak eta ahoan bilorik gabe.

Halaber, bihurgunea seinalatzen digu: ETAn sartzeko aukera ukan eta ez zuen egin, ordez, sumendiaren bihotzetik urruntzen zela, gaurko egunean arte martzial irakasle aurkitzen duguneraino.

Gure herrian nitasunetik isuri memoriak ez dira biziki estimatzen. Jakina. Agian, oraindik historia horretan, misterio asko geratzen da argitzeko, idazlearen erreferentzia aberatsen aintziran itorik datorkigulako menturaz, baina Juan Gorostidiren agerpenak zintzoak, ukigarriak eta premiazkoak direla deritzot, berak dioen eran, borroka armatuaren dolua hastear gauden kordoka honetan. Isilik egoteak ez du beti balio. ■

GURE ESKOLAN BERTAKO JANTOKIA JARTZEKO **4 URRATSAK**

2000. urtetik Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoen jantokiak catering bidez soilik kudeatzen ditu. Larrabetzu eta Erandiokoak dira urte hauetan guztietan beren kudeaketari tinko eutsi dioten bakarrak. Baina beste ikastetxe batzuetan gurasoak lanean hasi ziren duela hiru bat urte, ikasleek bertakoa, sasoikoa, eta ahal dela ekologikoa jango zutela bermatuko zuten jantoki proiektuak lantzen. EHIGE guraso elkarteak parte hartzen duen “Gure platera gure aukera” egitasmoa izan dute bidelagun. Eta honetan zirela, Eusko Jaurlaritzak bi urterako ireki die froga egiteko aukera: lau ikastetxe daude sartuta proba pilotuan, eta horietatik bik jarri dute martxan bertan kudeatutako jantokia ikasturte honetan: Gernikako Allende Salazar eta Markina-Xemeingo Bekobenta. Bietan izan gara, beste eskoletan gurasoak asmo berberetan baldin badabiltza, egin beharreko bidearen pistak har ditzaten.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIAK: DANI BLANCO



Zuriñe Egia Markina-Xemeingo Bekobenta ikastetxeko gurasoak azaldu du umeen asebetetze maila: "Jatun onak direnak oso gustura daude, mizkinak direnak gustura inoiz ez. Ume batek hala esan zion amari: 'Porru-patata izango da ekologikoa eta bertakoa, baina porru-patata izaten jarraitzen du!'".



Gernikako Allende Salazar ikastetxeko gurasoa da Dabid Zelaia-Zugadi. Bertako jantokiaren proiektuan hasieratik dabil buru-belarri, eta oraindik ia egunero joaten da ikastetxera, gauzak nola doazen ikustera: "Lehen jangela egunetan beste guraso batek jai hartu zuen lantokian. Momentu historikoa bizitzen ari garenen sentsazioa izan dugu guraso elkarteko lagunek" dio irri zabala ahoan. Argazkian ageri den Marian Araucua zuzendariak ilusioa azpimarratu du, eta lankidetzaz dela gakoa. Biek nabarmendu dute sukaldari, begirale, jantokiko arduradun eta proiektuko koordinatzailearen lana: "Beraiek dira proiektua aurrera ateratzen ari direnak".



Markina-Xemeingo Zuriñe Egia (eskuinean), sukaldarien ondoan. Bai Bekobentak eta bai Allende Salazarrek bertako sukaldeak izan dute betidanik, eta bertan prestatzen zuten janaria. 2000. urtetik aurrera arte, cateringek ekarritako elikagaiak ziren ordea, eta aurrera hasi dira bertako produktuak prestatzen eta kudeaketa gurasoek eramaten.

1. Kontzientziatu, helburuak jarri eta partekatu

Lehen lana kontzientzia hartzea izan zela kontatu digute bai Gernikako Allende Salazarren eta baita Markina-Xemeingo Bekobentan ere. Horretarako, Gernikan hamaiketako osasuntsuaren gaia landu zuten, eta Markina-Xemeinen Larrabetzuko gurasoen hitzaldia antolatu zuten, eta haien esperientzia entzun da, bideari ekiteko gogoz geratu ziren.

Ondoren, bakoitzak amesten zuen jantokiaren ezaugarriak edo helburuak zehaztu zituzten. Gernikako en helburuak azaldu dizkigu Dabid Zelaia-Zugadi gurasoak: "Umeek osasuntsuago jatea, inguruko ekonomia bultzatzea eta ingurumena zaintzea –kimiko gutxiago erabiltako jakiekin umeen osasunaz gain lurra ere zaintzen baitugu–".

Gaiaren lanketa osoa egiteko, bi ikastetxeetako guraso elkarrekin jantoki batzordea sortu dute. Markinakoei perfi anitzeko gurasoen inplikazioa bilatu

zuten batzorde horretan: nutrizionista, sukaldaria, bankuko langilea, aholkulari ekonomikoa...

Baina bai Gernikakoek eta bai Markinakoei, hasieratik jantoki batzordeak egindako lana besteekin partekatu eta adostu beharra ikusi dute: gainerako gurasoekin, zuzendaritzarekin, irakasleekin, udal ordezkarekin... Zelaia-Zugadi gomendio bakarra ematen du: "Hasieratik lankidetzan aritzea. Ez gurasoek proiektua hasi eta buka landu eta gero gainerako eskola komunitateari aurkezteko, alferreko bidea egiteko arriskua baitago. Pausoz pauso joan gara proiektua kontrastatzen eta adosten".

Inguruko eragileekin ere hasieratik jarri dira harremanetan bi ikastetxeetako gurasoak, hauengandik ikasi eta elkarlarnari ekiteko. Biek aipatu dute EHIGeren (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea) laguntza. Beste eskoletako esperientziak ezagutzera ere jo zuten: Larra-betzu, Erandio, Lekeitio... Gernikarrak

ENEEKekin (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoko Kontseilua) ere batu ziren, Lurbizi proiektuaren bultzada handia jaso zuten eta Urduñako udala izan dute erreferente. Markinarrei Landa Garapen Agentziak erraztu zien asko bidea.

2. Proiektua idatzi, Jaurlaritzaren proiektu pilotuan sartu eta marra gorriak zehaztu

Bi ikastetxeetako gurasoak lanean ari zirela harrapatu zituen Eusko Jaurlaritzaren proiektu pilotuan parte hartzeko aukerak. Proiektu bana aurkeztu zuten Hezkuntza Sailean. Markina-Xemeingo guraso eta jantoki batzordeko koordinatzailea den Zuriñe Egia azaldu digu txosten honen edukina: eskualdearen ezaugarriak, eskolarenak, helburuak eta planteamendu zehatza.

Jaurlaritzaren proiektu pilotuan parte hartzeak zer esan nahi duen galdetuta, antzerako erantzuna eman digute:

MITOAK HAUSTEN: BERTAN BADA NAHIKOA ELIKAGAI

BEKOBENTA: 0 KILOMETRO ETA BERTAKO KOMERTZIOA

Zuriñe Egia: "Ahal dela bertako baserritarrei erosten diegu, eta ahal dela ekologikoa. Falta dena Euskal Herriko ekoizleei erosten diegu. Hortik aurrerakoak, herriko dendarien bidez eskuratzen ditugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu herriko denda txikiak ere suspertzea". Irudian duzue elikagai bakoitza nondik ekartzen duten.

Barazki freskoak

5 baserriar ekologiko. Markina, Aulesti, Berritxu, Ispaster: %55-77,3
Markina-Xemeingo denda: %22,7-45

Frutak

Markinako denda: %66,6
Valentzia: %33,3

Ogia

Markina-Xemeingo 2 okindegi: %100

Arrain freskoa

Ondarruko lonja: %100

Landa arrautzak

Gizaburuagako ekoizlea: %100

Esne pasteurizatua

Berritxuko baserritarra: %100

Txahal eta txerri okela

Amorebieta-Etxanoko despieze sala. Labeldun okela %100

Lumagorri oilaskoa


Labeldun oilaskoa %100

Izoztuak

Larrabetzuko banatzailea %100

Beste produktuak

Markinako 3 denda %100



Patata ekologikoak

Burgelu (Araba) %100

Lekari agroekologikoak

Berantevilla (Araba) %100

Oliba olio birjina estra

Cascante (Nafarroa) %100

ALLENDE SALAZAR: BERTAKOA BEZAIN EKOLOGIKOA

Dabid Zelaia-Zugadi: "Hornitzaileak hautatzeko erabaki genuen onena zela lehiaketa publikoa egitea. 12 lote egin genituen [eskuineko zerrendan ageri direnak]. Pleguetan saritzen dugu, batik bat, bertakoa izatea (bertako eskualdekoari 30 puntu, alboko eskualdekoari 15 eta EAEkoari 10 puntu ematen dizkiogu); ekologikoa izatea (30 puntu) eta ekoizleen arteko elkarlana (30 puntu)". Allende Salazarrek elikagai hauek erabiltzen ditu:

- Barazkiak ekologikoak, Busturialdeako bost baserrietakoak.
- Fruta ekologikoa, Busturialdea, Kanariar Irlak, Valentzia eta Nafarroakoak.
- Lekariak eta zerealak ekologikoak Araba, Gaztela eta Ebrokoak.
- Arraina: baxurakoa eta bezperan harrapatutakoa, Ondarroako arrandegi batek saltzen diena.
- Ogia ekologikoa, %10 integrala. Bertako okinak egina.
- Oliba ekologikoa, lehenengo prentsakoa, Nafarroakoak.
- Gazta eta jogurta ekologikoak, Errigoitikoak.
- Okela gorria Busturiakoa, Euskolabelduna.
- Txerriak Euskolabelduna (Basatxerri).
- Oilaskoa "Campero", Galiziako labelduna.
- Arrautzak ekologikoak, Busturiakoa.
- Kontserbak Gizaburuagako enpresakoak.

sukaldariak Jaurlaritzak kontratatzen dituela, orain arte egiten zuen bezala, eta ez dela gutxi. Sukaldeko makinariak ere Jaurlaritzaren ardura izaten jarraitzen du. Izan ere, bai Bekobentan eta bai Allende Salazarren, betidanik egon da bertako sukaldia jantokian. Catering enpresek kudeatzen zuten ordea, eta catering enpresek ekartzen zituzten elikagaiak.

Proiektu pilotua martxan jartzeko temati lan egin duen EHIGeko Lurdes Imazek adierazi du Jaurlaritza ez dela “ohiko” prozedura eramaten ari. Alegia, ez dela bertan parte hartzeko deialdi zabalik egin, ez formaziorik eta aparte-ko baliabiderik jarri ere, eta bidea arian arian egiten doazela. Beraz, bertan parte hartzen ari diren ikastetxeek aitzindaritz lan handiagoa daramate.

Proiektu pilotuan abiatzea erabaki bazuten ere, bi ikastetxeek diote ez dutela inongo pistarik jaso administrazioaren aldetik, frogako bi urteak pasatuta gertatuko denaz. Jauzi egin aurretik, sarea bermatu zuten ikastetxeek, euren buruei marra gorriak jarritz: gurasoen kuota berak mantentzea, likidezari ikasturte osoan eutsi ahal izatea, sukaldean zituzten gailuekin funtzionatu ahal izatea, elikagaiak aldatu arren ikasleen ordura arteko gustuak kontuan hartzea, sukaldarien lan ohiturak ahal den heinean errespetatzea, begirale berak mantentzea...

3. Menuak, ekoizleak eta langileak

Proiektua onartu ostean, menuak egiteari ekin zioten (ikus ondoko orrian “Menuak” koadroa). Menu horietan oinarrituta, ekoizleak hautatzea eta lan modua adostea izan zen hurrengo pausoa (zehatzago azaldua 24. orriko “Mitoak hausten” koadroan). Honen guztiaren eguneroko martxa eramateko, ikastetxe bakoitzak bere erako lantaldia osatu du: Gernikakoa Hego Euskal Herriko jantoki handienetakoa izanik, guraso elkarteak hasieratik ikusi zuen koordinatzaile bat egun erdiz kontratatze beharra. Koordinatzaile hau bulego berean elkarlanean aritzen da ikastetxe publikoetan egon ohi den jantokiko arduradunarekin (irakasleriaren zati den lanpostua). Markinak eskola txikiagoa izanik, oraindik ez dute horrela apusturik egin, eta Garapen Agentzia da bere langileen bidez eguneroko lan karga arintzen diena: hornitzaileekin

MENUAK

Eusko Jaurlaritzak finkatua dauka menuen protokoloa eta jarraitu beharrekoa da, beraz, oso zehaztutako markoaren barruan osatu dituzte bi ikastetxeek menuak, nutrizionista banarekin. Hala ere, catering enpresen menu estandarrek ez dutela balio azaldu du Markinak Zuriñe Egia gurasoak, cateringak nonahitik ekarritako elikagai izoztuak baitituzte oinarri eta eurek garaiko produktuak eta bertakoak. Ondorio nagusia izan da, esaterako, egun bakoitzean zer barazki emango duten aurrez ezin zehaztea. Eguraldiaren eta uztaren arabera asko aldatzen baita bertako ortuen egoera.

Horregaik, Dabid Zelaia-Zugadik azaldu digu nutrizionistak eginiko oinarritzko menua, inguruan duten ekoizleen eskaintzarekin egokitzea dela lehen pausoa. Eta bigarren egokitzapena jantoki arduradunarekin eta begiraleekin egiten dute: hauek “espinakak ematekotan hobe purean osorik baino” moduko aholkuak ematen dizkiete. Hirugarren egokitzapena, sukaldarien kontrasteak dakar eta prestatzeko lanarekin du zerikusia, esaterako, “arroza egiten den leku berean egiten da oilasko bularkia, beraz, ezin dugu egun berean eman, ez gara prestatzera iritsiko”.

Menuak egiterakoan kontuan hartzen dira “gramajeak” ere, hau da, jaki bakoitzetik ume bakoitzak zenbat gramo jango dituen. Hartara kalkulatu dute elikagai bakoitzetik urte osoan zenbat kantitate beharko duten (hornitzaileak lotzeko oinarria haxe da).

prezioak adostu eta hilabeteko plangintza egiten du.

Izan koordinatzailearen bidez, izan Garapen Agentziako langileen laguntza, guraso elkarteak betetzen dituzte beste ikastetxeetan catering enpresak dituen ardurak: menuak egitea, kontuak eramatea, erosketak egitea, hornitzaileei ordaintzea, begiraleak kontratatzea (bi ikastetxeek catering enpresen bidez azpikontratatu dituzte aurretik ari ziren begirale berberak)... Zelaia-Zugadik nabarmendu du aldea: “Ez dugula irabazi asmorik. Horregatik, gutxi gora behera %40 gehiago gastatu dezakegu

elikagaietan. Horrela lortzen dugu kalitatea handitzea (ez dugu Jaurlaritzaren inongo aparteko laguntzarik jasotzen). Boluntario lanari esker dira gure aurrekontuak bideragarriak”.

4. Martxan jartzean: sistematizatu eta egokitu

Bi urteren buruan errealitate bihurtu dute euren ametsetako proiektua. Lehen urteak eskatzen du paperean diseinatutakoa etengabe praktikarekin kontrastatzea. Esaterako, ohartu dira berdela 2 urteko haurrentzat arrisku-tsua dela, hezur txiki asko duelako eta beraz, berdela ematen duten egunean txikienei legatza ematea erabaki dute. Edo arrosesnea egiten duten egunean, aurreko bi platerak denbora gutxian prestatzekoak behar dutela izan. Tipula gehiegi edo dilistak juxtuan eskatu dituztela... Begiraleak eta sukaldariak dira egokitzen hauen ekarpen gehien egiten dituztenak. Egiak pozik hartu zuen baieztapen hau: “begiraleak esan zidan, badakizu nola jango duten umeek fruta gehiago? eman denetik. Urtetan sagarra eta platanoa besterik ez diegu eman. Sartu kiwia, udareak, meloia... eta halaxe izan da. Lehen umeek patatak jan eta arraina ertzean uzten zuten, eta orain, Ondarroako arrain freskoa ekarrita, arraina dena jaten dute eta patatak dira ertzean geratzen direnak”.

Lehen dena izoztutako elikagaiak prestatzen ohituta zeuden sukaldariei eguneroko lana aldatu egin zaie, orain produktu freskoek eskatzen dute prestatzen esku lan handiagoa eta denborak ezberdin kudeatzea. Baina emaitzarekin denak daude askoz gusturago, eta eskolan zabaltzen den janari usaina (bezeziki arrain freskoarena) jartzen dute denek adibide.

Gernikarrek argi zuten hasieratik sistematizatu egin nahi zutela eguneroko lana. Zelaia-Zugadi: “Programa informatiko bat erosi dugu, diru asko kostata. Gure lana errazteko egin dugu, hor biltzen baitira balio nutrizionalak, hornitzaileak, gramajeak... eta ia automatikoki egin ahal izango ditugu hilabeteko menua eta kalkuluak. Baina ondorengoengatik ere egin dugu. Ez dugu nahi atzetik datozenak hutsetik hastera. Datu base hau partekatu nahi dugu, %70a eginda has dezaten beste ikastetxeek bidea. Beste batzuek gurekin egin zuten bezala, guk ere hurrengoak lagundu nahi ditugu”.



Bi urte barru zer?

Jauzi egitea erabaki dute ikastetxeok, eta euren buruari frogarako epe bat eman diote: “Gai izango al gara ekonomikoki bideragarri egiteko?” horixe dute zalan-tza bakarra. Egiak honela kontatu du: “Paperean oso argi ikusten zen ekonomikoki emango zuela, baina estu ibiliko ginela ere bai. Horregatik erabaki genuen aurreko ikasturteko apiriletik ekainera martxan jartzea, hiru hilabete horietan frogatzea, eta diruek ez bazuten ematen, proiektua ixtea”. Irailean berriz ateak ireki izanak erakusten du ekonomikoki bideragarria dela. Baina hasierako estualdia ez du ahazteko: “Hilero gurasoei berdin kobratu behar diegu, baina hilero ez dugu menu kopuru bera zerbitzatzen. Eta juxtu apiril eta maiatza diruak orekatzeko oso hilabete txarrak dira, egunero geratzen direlako bazkaltzen (ekainean, adibidez, hil erdian baino ez). Gainera irteerak izaten dira eta bokadiloak garestiago irtetzen dira, eta gehitu horri sukaldean inbertsioak egin behar izan genituela (izozkailua erosi genuen, labanak...). Larritu egin ginen, baina denborarekin ikusi dugu hilabete bat eta bestearekin ore-

Gernikako Allende Salazar ikastetxeko ikas komunitateak aurtengo maiatzean egin zuen agerraldia, jantokiko proiektua ofizialki onartu zutela ospatzeko.

Datua:

Gernikako Allende Salazarreko 650 ikasleri egunero bazkaltzen emateko elikagaien gastua 250.000 eurokoa da urtean. Bertako ekonomiarentzat ekarpen handia da, bereziki lehen sektorearentzat

katu egin zaizkigula kontuak. Kontuek ematen dute”.

Gernikako Allende Salazarreko zuzendari Marian Araucua ere larritasun bakarra ikusten du: “Bekadunak diren ikasleek ez dute jantoki kuotarik ordaintzen, eta Jaurlaritzak ez du bekadunen dirua hilean hilean ordaintzen, otsaila

aldera baizik. Horregatik, bekadunen dirua iritsi arte likidezari nola eutsiko diogun da gure duda bakarra. Gainerakoan, badakigu ongi joango dela”. Zelaia-Zugadik konfiantza du diru kontuak orekatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko dituztela, beharrak estutzen baditu: “Kuota bera da, administrazioak aurrekontu bera jartzen du, eta emaitza guztiz ezberdina da. Ikasturte hau titular honekin bukatzea da gure helburua: ‘Baliabide berberekin, eredu aldatu da’. Lehen ikasturte honetan ikusiko da zer kalitateko jakiak ematera iristen garen. Ez dugu arazorik aldaketak egiteko ere”. Irribarretsu begiratzen dio etorkizunari: “Guk lanak ondo egingo ditugu, eta gure helburua da, EHIGerekin batera, proiektu hau gainerako ikastetxeetara zabaltzea. EHIGerekin Gure Platera Gure Aukera proiektuan ari gara parte hartzen, helburu berarekin: aurrerantzean ekin nahi dioten eskolei laguntzea, asesoratzea. Gure esperientzia eta gainerako ikastetxe aitzindariena hor jarriko dugu, besteen eskura. Espero dezagun bi urte barru ongi baloratuko dela proiektua eta Jaurlaritzak atea irekiko duela ikastetxe gehiagorentzat”. ■

Carme Junyent, hizkuntzalari eta Bartzelonako Unibertsitateko irakasle

“INDIFERENTZIAK HILTZEN DITU HIZKUNTZAK, EZ HIZKUNTZAREN KONTRAKO ETSAIGOAK”

Iragan irailaren 21ean hitzaldia egin zuen Bartzelonako Unibertsitateko irakasle Carme Junyentek Gasteizen, Euskal Herriko Unibertsitateko Letren fakultatean, Oihaneder Euskararen Etxeak antolatutako *Hitz adina mintzo* zikloaren aurkezpenean. Hizkuntzen heriotzaren gainean solastu aitzinetik, Junyentek aipatu zikloaren kalitatea azpimarratu zuen, adituen maila bikaina goretsi eta entzuleak saio guzietan parte hartzera gonbidatu.



Miel A. Elustondo

Unibertsitatean egin hitzaldian hizkuntzen heriotza zuen gaia Carme Junyentek, baina lehenbiziko sorpresa etorri zen katalanez solastu baitzen hasi eta buru. Hortik heldu diogu elkarrizketari.

Katalanez egin zenuen hitzaldia.

Proposatu zidaten, eta ez nuen eragozpenik izan. Hitzaldiaren testuingurua aintzat hartu behar duzu, hizkuntzen aniztasunaz kezkatutik dagoen jendearen aitzinean ari nintzen, eta katalanez ari, erakutsi nahi nuen hizkuntzak bizirauten laguntzeko modua dela interkonprenetsioa lantzea. Zinez, ez da laguntza ttipia ere. Ez dugu esperatzen pertsona guziok hizkuntza erromaniko guziak ikastea ere –erromanikoak, gure kasu honetan–, baina egia ere da hizkuntza erromanikoetako bat solasten dugunok, gainerako erromanikoak aski ongi konprenitzeko gisan garela. Aski dugu egokitze ahalegin ttipi bat, ez sobera handia, egitea.

Ahalegin ttipi bat da.

Bai. Anitzetan jokutzen dugu gisa horretan hizkuntzalariok. Errateko manneran, jardunaldi bat egin zaharra ere ez dugu lau hizkuntzalari japoniarrekin. Gure buruei galdegin genien nola egin genezakeen ingelesa baliatu gabe, hori aise baita beti, lehenbiziko asmatzen den soluzioa duzu. Hizkuntzalarien artean bazen bat katalanez solastu zekiena eta, bistan da, katalanez solastu zen. Bigarrenak, Belgikan ari baita lanean, frantsesez daki, eta frantsesez komunikatu zen. Hirugarrenak okzitanieraz zekien, eta halaxe zen solastu. Laugarrenak, ez baitzekien hizkuntza erromanikorik, esperantoz jardun zuen! Liburua argitaratzean, lau hizkuntzetan ageri dira artikulak, eta bertzalde, katalanezkoa japonierara itzulirik ere eman dugu. Eta denak kontent. Ingeleseztan egin izan bagenu, egia erraten dizut, ez zukeen interesik, ez

zatekeen jardunaldietara nehor etorriko. Egitateon bidez erakusten dugu zinez posible dela hizkuntzen bizirautea eta hizkuntzen aniztasuna.

Jarrera positiboa da ezinbertzeko.

Zerutik jakina duzu. Bertzalde, jarrera positiboa baldin baduzu bozkarioan bizi duzu bizia, ziurrenik. Badakit, haatik, gehiengoan hizkuntzetako hiztunek nekez barneratzen dutela erraten ari naitzena. Ez dute esperientzia bizi izan, ez dute sentitu, ez dakite zertaz ari garen ere. Euskal Herrira anitzetan etortzen bainaiz, gehien inpresionatzen nauen gauzetako bat da zenbatetan eta zenbatetan egin behar diozuen uko zeuen hizkuntzari, zuekin bizi den jendeak ez dakielako euskaraz. Horiek ez dute pentsatu ere egiten, ez dute planteatzen, baina euskaldunarentzat gogorra izan behar du behin eta berriz eta anitzetan hizkuntzaz aldatu behar izatea.



ZALDI ERO

Gutixko gara marea handi horri uharka egiteko.

Gutxi izateak are ardura handiagoa duzuela erran nahi du. Zenbait hizkuntzak ez du ahaleginik behar bizirauteko. Al-diz, hiltun gutxi, edo gutixko, dituzten hizkuntzen hiltunak euren hizkuntzan solasten ez badira, ezinezko da hizkuntza horrek luzaz irautea. Erran nahi baita, hizkuntza gutxitu bateko hiltunak hizkuntzarekiko konpromisoa duela, bere ardura du, eta inoren aitzinean bere hizkuntza gutxituan solasteak ez du ikustekorik bertzearekiko errespetuarekin ez oldarkortasunarekin: bata bertzearen ondoan baldintza berdinetan bizitzea bertzerik ez da hori. Behin, horixe erran nuen Iruñean, eta hizkuntz eskolako irakasle bat solasean etorri eta erran zidan: “Bai, anitzetan kanbiatu behar dugu gure hizkuntzatik bertzera, baina, ordainetan, badakigu zein tabernatara joan, zein okindegitara, euskaraz

solasteko”. Niri izugarria iruditu zitzaidan, horrek bi komunitate sortzera eramanen baikaitu ezinbertzez. Oroz gain, gauza bat erakutsi beharko genuke, elebakarrek duten ezintasuna, elebidunek egiten dutena egiteko, alegia, hizkuntza bat baino gehiago ikasteko. Elebidunek egiten ahal dute, elebakarrek ez? Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak poz handiak ematen ditu. Elebakarrak, bertzalde, bertze hizkuntzarik ez dakitelarik, euren auzoak baino gutxiago direla, gaitasun ttipiagoa dutela erakusten ari dira.

Zer egin elebakarrekin?

Gehiago hizkuntzak solasten dituzten hiltunei dei egitearen aldekoa naiz ni, oroz gain haien elkartasuna eta solidartatea behar ditugulako. Kontuan hartu behar da gizateriaren %96k munduko hizkuntzen %4 solasten dituela, eta alderantziz, gizateriaren %4k munduko

“Anitzetan erraten didate, Francok katalana mehatxupean jarri zuela, eta egia da, baina Francoren sasoian katalanak ez zuen hiltzeko perilik, hiltun elebakarrak bazirelako”

hizkuntzen %96 ematen dituela. Oreaka ekolinguistikoa berreskuratzeotan, nahitaezkoa dugu gehiengo hizkuntzetan mintzo direnen solidaritatea.

Hizkuntzen heriotzaren gainean solastu zinen Gasteizen eginiko hitzaldian, eta ez direla beraien ezaugarriengatik hiltzen erran zenuen.

Hizkuntzak ez dira hiltzen modernoak ez direlako, azpigaratuak direlako... Barbaridade handiak erraten dira. Euskaraz denaz bezainbatean ere bortzetan baino gehiagotan aditu dugu ez zegoela modernitaterako prestatua, eta aldiz, esperientziak erakutsi du gezurra dela hori ere. Hizkuntza guziek gaitasun eta ahal berak dituzte. Eta hiltzen dira hitzunekek egiten duten presioagatik, hizkuntza jakin batzuk hil daitezzen. Horrela hil dira hizkuntzak, badakigu, eta hori dakigularik, beharko genuke gai izan egoera iraultzeko, eta oroz gain, artean garaiz gabiltzan bitartean erabilera eta transmisioa ziurtatu, klabe baitira, giltza.

Elebitasunaren onurak bertzerik ez dira aipatzen, baina elebitasunaz bi hitz baino gehiago egin zenuen zuk hitzaldian.

Bereizi behar da: bata duzu elebitasun indibiduala, eta hor ez duzu deusen kalterik. Inork bi hizkuntza edo gehiagoko jakitea eta solastea arraz ongi da. Bertzerik da, ordea, komunitate baten barnean kanpotik ekarri duzun bertze hizkuntza bat sartzea, eta bigarren hizkuntza honek lehenbiziko haren lekua hartzea, ordezkatzeta, lehenbiziko haren heriotza ekartzetara. Prozesu horrek hiltzen ditu hizkuntzak. Elebitasuna ez da kausa, baina ordezkatzeta prozesua gerta dadin ezinbertzeko baldintza duzu. Anitzetan erraten didate, Francok katalana mehatxupearan jarri zuela, eta egia da, baina Francoren sasoian katalanak ez zuen hiltzeko peririk, hiltzen elebakarrak bazirelako. Orduan, ezinezkoa zen hizkuntza desagerraraztea. Gure amatxik, errateko, ez zekien katalanez bertzerik: alferretan zen hari gaztelania inposatzea. Gaur egun, dena den, zentzugabea da gizarte elebakarrraren aldarri egitea, Internet eta gainerakoak hori direlarik. Gure lehenbiziko proposamena da –eta bertze gizarte batzuetan begira ibili eta gero egiten dugu–, gizarte eleaniztuna dela onestea. Katalunian, hasteko, %10ek baino gehiagok ez du katalana ez gaztelania



lehen hizkuntzatzat. Hortaz, balia dezagun egoera, hizkuntzen arteko erlazioak birpentsatzeko, elebitasunetik harantzago joanez.

Erabilera, transmisioa, hizkuntz ordezkapena... hondarreko, biziberritzera jo behar.

Orain hori da kezka, kasik kolapso egoerara ailegatu garelako. Errateko, apirilean hizkuntzen biziberritzearen gaineke lehenbiziko biltzarra egingen dugu Bartzelonan, Viceko eta Indianako unibertsitateekin batera. Zinez harrituak gara, proposamen anitz jaso baitugu, eta, oroz gain, adituen eskutik baitatuz. Erraten genuen ez genuela, bertzerik gabe, akademikoen kongresua egin nahi, hizkuntz aktibistak ere nahi genituela. Eta harrigarria da ikustea jendeak saiatzen dituen bideak: musikaren bitartez ari dira, edo joko eta jolasen bitartez; hau da, eskolarekin ikustekorik ez duten sozializazio jardueren bidez. Hizkuntz dinamiza-

“Hizkuntz dinamizatzailleak jabetzen ari direnez, gakoa ez da erabileraren formaltzea, bat-bateko erabilerari eragitea bertzerik”

“Katalunian pertzepzioa da, leku anitzetan ez dela gaztelaniara jotzen: nik erran nezake baietz, leku guzietan pasatzen ari dela ikasleak gaztelaniaz solastea”



WWW.ARA.CAT

Argazkian, Plataforma per la llengua egindako elkarretaratzea, katalana denentzako aldarrikatzeko.

tzaileak jabetzen ari direnez, gakoa ez da erabileraren formaltzea, bat-bateko erabilerari eragitea bertzerik. Ikusi-ko dugu biltzarrek zer dakarren, baina uste dut ideia hori ongi errotzen ari dela guzior gogoan: erabilera eta transmisioa dira oinarri. Gainerako elementuak hautazkoak izan litezke, baina bi horiek, erabilera eta transmisioa, ezinbertzekoak dituzu. Eta, bertzalde, erabilera hori espontaneo izan dadin saiatu behar da.

Nola dira gauzak Katalunian? Irudi luke hizkuntza bizi-bizirik dela eta, zuk, aldiz, gauzak ez direla batere horrela erran zenuen.

Horixe da diskurtso ofiziala, gauzak ongi doazela, baina ez da horrela, ikusi bertzerik ez dago bateko eta bertzeko

eskolara joan eta. Ez da denbora anitz, orain artekoak ez bezalako lana argitaratu dugu: eskualde oso bat hartu genuen aztergai, eta hango eskola guztietara joan ginen. Eskualde dena delako horretan bada denetarik, badira industri zonaldeak, nekazaritzakoak... Horietako herri batera joan –non ustez denak katalan hiztunak baitira, eskolako hizkuntza ere katalana–, jo patiora eta neska-mutilak gaztelaniaz ari jolasean. Ez dakizu zendako den hori horrela, baina hori duzu errealitatea. Katalanaren gainean solasean, jendeak metropolia du beti gogoan. “Gironan ez da horrelakorik gertatzen, gelatik kanpora ere katalanez solasten dira ikasleak!” erranen dizute, “Vic-en ere ez, Vicen ere katalanez ari dira!”. Baina batean eta bertzean izana naiz, bertatik bertara ikusi dut, institutueta joan naiz, eta badakit zer aditu dudana: ikasleak gaztelaniaz. Eta, hala ere, hori da pertzepzioa, leku anitzetan ez dela gaztelaniara jotzen: nik erran nezake baietz, leku guztietan pasatzen ari dela ikasleak gaztelaniaz solastea.

Diskurtso ofiziala bide batetik, errealitatea bertetik.

Dena ongi doala sinetsi beharko bagenu bezala. Trantsizioaren hasieran, %50ek zuten katalana lehen hizkuntza. Gaur egun, %36koa da zifra hori. Hamalau puntu egin dugu gibelera 40 urtean, eta anitz da. Generalitatearen errolda datuek erraten dute, eta Bartzelonako Udalaren datuek ere ber gauza erraten dute, eta metropoliarenak... Etengabea da gibelera tzea. Zulu hizkuntzaren gainean solasean ariko bagina, pasatzen ari dena desagertze prozesua dela erranen genuke. Katalanaren gainean nola ari garen, ez. Datuak hor dira, gordin. Ez dira nik asmatuak.

Gizartea aktibatu behar dela erraten ari dira gurean.

Indiferenteak aktibatzea da beharrezko. Errateko, beti izanen da %15 bat hizkuntzaren militantez osatua, bertze %15 bat kontrarioz, eta %70, zatirik handiena, indiferentez osatua. Bada, %70 hori landu behar da. Militanteak hor dira beti, kontrarioekin ez da egitekoric, indiferenteak dira giltza. Hain xuxen, indiferentziak hiltzen ditu hizkuntzak, ez hizkuntzaren kontrako etsaioak. ■



OKINDEGIA

☎ 94 683 01 29

ONDARRU

11itzulpen

EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN

INGELETIK
EUSKARARA
ZUZEN

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:

11itzulpen (34) 699 433 121

URIBEK ERE EZ ZUEN ESPERO

Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EPk Habanako akordioak Cartagenan sinatzean, jende andana pilatu zen Bogotako Bolívar plazan. Batukadak, mozerroak, kolorea, ilusioa. Sinaduraren ostean, kontzertuak eta parranda ere izan ziren bertan. Festa hori urriaren 2an gainditu egingo zela uste bazen ere, ez da hala izan.

Lukas Barandiaran San Roman

Plebisituaren ondorioz alkohola edatea debekatzen duen “Lege lehorra” indarrean egon arren asteburu osoan, Bolívar plazan biltzeko deialdia egina zuten, baietzaren garaipena ospatu asmoz. Halakoa zen konbentzimendua, bestela ezin ulertu espektakulu bilakatu zuten sinadura plebisituaren aurretik egitea. Habanako akordioei Kolonbiak baiezkua emango ziela zen pentsamendu orokorra. Horrenbeste non, ezezkoaren buru Alvaro Uribe berak esan baitzuen oso nekez irabaziko zutela.

Ezustea iritsi zen ezezkoak bozen %0,46ko aldeaz irabaztean: %50,23 eta %49,77. Dena prest zegoen baietzak irabazi ondoren aurrera egiteko, ezer ez ezezkat irabazi osterako. Orain, zer?

Etsipena eta tristura zabaldu dira kolonbiar askoren artean. Sare sozialak borborrean ziren, baietzaren aldekoen arteko eztabaidak, lotsaren adierazpen etengabeak, itxaropenik eza.

Lau urte luzeko negoziazioen ostean, hainbat gai jorratzen zuen akordioa lortua zuten gobernuak eta FARC-EPk: nekazaritza-erreforma, parte hartze politikoa, gatazkaren amaiera, legez kanpoko laborantza (drogak) eta biktimen gaiak.

Adostutakoa indarrean jartzea besterik ez zegoen –nahiz eta hori izan erronka handiena, hitz egindakoa errealtate bilakatzea–. Koska txiki bat besterik ez zitzaion geratzen, txikikeria bat, plebisitua. Gobernuak eta FARC-EPren komandanteek, hots, gutxi batzuek adostutakoak kolonbiar guztien zilegitasunarekin blindatzea zen helburua. Bazekiten plebisitua ez zutela erraz gaindituko, baina irudikatutako mehatxua ez zen izan ezezkoaren aldeko bozka, baizik eta abstentzioa. Horregatik, plebisitua baliogarri izateko gobernuak eroldaren %13an jarri zuen gutxieneko parte-hartzea.

Horrenbesteko garrantzia duen gai bati langa hain baxua jartzeak erakusten du gobernuaren beldur nagusia zein zen. Eroidaren %13 horrek 4,5 milioi bozka esan nahi du, eta azkenean, 13 milioi inguru izan ziren, uste baino dezente gehiago. Hala ere, eroldaren %37,43k bozkatu du soilik.

Santos presidentearenak dira hurrengo esaldiak: “Ez bada onartzen [akordioa plebisituan] ez da ezer egingo akordioak gauzatzeari dagokionez. Eta zer egin behar dut nik? Jaun hauek oiha-



nera itzuli eta duela sei urte egiten genuenera itzuli”, edo “Ez nago behartuta, baina nire hitza beteko dut, ezezkoak irabaztekoan amaitu da akordioa”. Gobernuko negoziatzaileen buru Humberto De la Callek esana: “Herriak ezetz badio, amaitu da prozesua”. Eta azkenik, Carlos Antonio Lozada gerrillaren negoziatzailearen hitzak: “Ez dago Habanan adostutakoa birnegoziatzeko inolako aukerarik”.

Horixe zen ezkertiarren arteko beldurra, ezezkoak irabaztekoan, uribismoaren itzulera ote? Hots, azenarioa baztertzekoan, makila ote erantzuna? Hori ulertzeko, jakin beharra dago Santos Defentsa Ministroa izan zela Alvaro Uriberen gobernuan (2002-2010) eta beraz, uribismoak Kolonbiako ezkertiarren artean sortutako izuaren itzulera ez dela erokeria, Santos bera izan baitzen izu horren erantzule zuzena, nahiz eta orain kontrako papera jokatu. 2000. urtean FARC-EPren soldaduak 20.000 ziren, eta ELNrenak 7.000, 2010ean, 7.000 ingurura murriztu ziren FARC-EPrenak, eta 2.000ra ELNrenak gobernuaren erasoaren ondorioz besteak beste; Uriberen gobernuak



Ezkerreko eta goiko lehen irudian ikus daitezke akordioaren aurkakoen eta aldekoen erreakzioak plebisituaren emaitza jakin berritan. Ondoa Santos eta Timochenko, Kolonbiako presidentea eta FARCEko buruzagia hurrenez hurren, Kubako presidente Raul Castrorekin batera.

lotura nabarmenak izan ditu egitura paramilitarrek, eta horiek 1995 eta 2005 bitartean (gatazkak 50 urte baino gehiago iraun ditu) 3.500.000 pertsona desplazarazi dituzte, eta gatazkako sarraskien %58 eragin zuten.

Paramilitarren artean erabilitako esamolde batek adierazten du Santos eta Uriberen politika: "Arraina hil ahal izateko, urarekin amaitu behar da". Hau da, gerrillak deuseztatzeko bere oinarri diren mugimendu ezkertiarrek ezabatu behar dira. Lema horrek adierazten du iragandako hamarkadan Kolonbiako gizarte zein mugimendu politiko ezker-tiar, feminista, indigena, nekazari, langile, ekologista, giza eskubideen aldeko, ikasle, gazte eta abarrek jasandako ondarraldia, eta ondorioz, izua.

Horrexegatik plebisituaren osteko etsipena. Kolonbiako gatazka sozialak, FARC-EP eta ejertzitoko soldaduetatik harago, heriotza ugari eragiten jarraituko du, zoritxarrez. Abuztuaren 27tik (akordioa prest zegoela iragarritako eguna) irailaren 21era bitarte gutxienez 22 ekintzaile, nekazari eta indigena hil zituen eskuinak hilketa selektiboekin.

Eta orain zer?

Emaitzak jakin ostean, Rodrigo Londoño Echeverri, FARC-EPko buruak, Santosek eta Uribek su-etenarekin, negoziatioekin eta akordioekin jarraitzeko nahia adierazi zuten. Horrek esan nahi du inork gutxiak duela, itxuraz bederen, Kolonbiako gerraren gordinenera itzultzeko gogoia.

Lehen biena ulergarria da, baina Uribe zergatik agertu da prest orain akordioei berrekiteko, kanpaina guztian akordioaren aurka azaldu denean?

Bada, geroz eta argiagoa da azken bake prozesu honek herrialdeko historian hamaikagarrena—Kolonbiako jokaleku politikoa eta militarra eraldatu dituela. Badirudi prozesu honek oinarri sendoak aurkitu dituela herrialdeko gizartean. Mende erdi luzearen ostean, armek Kolonbiako gatazkari irtenbidea ekarriko diotela uste dutenak geroz eta gutxiago dira, baita uribisten artean ere.

Jada 2010ean, bake prozesu bat hastearen inguruko iritziak Uribe eta Santos bereizi zituen. Lehena, lur-jabe handiek osatutako oligarkia tradizionalaren buru da, "etsai komunista" kosta ahala kosta ezabatzearen aldekoa. Santos berriz, oligarkia "modernoarene" buru da, zeinak uste duen Kolonbian gatazka armatua amaituz gero, negoziatioak medio badira ere, askoz errazagoa izango dela eredu neoliberal txertatu eta herrialdearen ondasunak ustiatzea.

Habanako akordioak garatu ahala, atzera egin ezinezko bilakatu dira eta denak ohartu dira akordioaren osteko Ko-

lonbian bakoitzak edukiko duen pisua eta indar-harremana akordioetan edukitako paperak baldintzatuko dituela. 2018an izango dira presidentetzarako hauteskundeak.

Ikuspegi horretatik, Habanako akordioetako garaileak Santos eta FARC-EP ziren, eta Uribe berriz, beti ezezkotan dagoen marmartia. Plebisituak aukera ezin hobea eskaini dio, ordea, azken horri. Ezezkoak irabazita, Santosek eta Timochenkok eskua luzatu diote Uriberen diskurtsoa FARC-EPren kontrako gupidagabetasunean oinarritu bada ere, zer axola zaio gerrillari batzuek betekotuzten kartzela urteak, jokoan dagoena Kolonbia gobernatzeko bada?

Uribek aukera paregabea jaso du Habanako mahaian kolpea eman, bere hitza eta irudia bertan txertatu, eta berriz ere Kolonbiako eszenatoki politikoko erdigunean kokatzeko.

Timochenkok esan zuen Cartagenako diskurtsoan hitza izango dela hemendik aurrera Kolonbian gatazka politiko-soziala konpontzeko arma; hori baieztatzea gehiegi esatea da, nabarmen, eta Habanako akordioek Kolonbiako gatazka konponduko dutela gezur hutsa. Hala ere, eta gatazkaren eboluzioa nolakoa izango den esatera ausartu gabe, egia da egun Kolonbian entzuten diren tirohotsak geroz eta gutxiago direla, eta Habanan adostutakoak, eta batez ere, bakoitzak bertan izandako paperak eraturiko duela, hein batean, etorkizuneko Kolonbiako jokaleku politikoa. ■

Galerna

Amarru baten zorigaitz iragarria

1936ko urriaren 15ean lau *bou* frankista Baionatik Bilbora zihoan *Galerna* bakailao-ontziaren jabe egin eta Pasaian porturatu zuten. Prentsa faxista eskifaia eta bidaiari presoek trufatu zen, erreketen balentria laudatzen zuen bitartean. Gaur badakigu ontzi errepublikarra traizio baten amarrupean erori zela, eta egunkarietako lerro-buruak zorigaitza iragartzen ari zirela.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Joxe Mari Lopetegui irundar errepublikazaleak barruan zeraman samina askatu zuen *Euzkadi Rojan* 1937ko urtarrilean:

*Agur Manolo Gurutzeaga
nere lagun maite fiña,
abeslaritan gain gañekua,
prestua ta atsegiña;
nere mingañoak ez dauka itzik
lan ori neurtzeko diña,
zuek modu ortan il zaituztenak
dute diaurruen zotiña,
ez dakite oik nolakoa dan
Kristo zanaren dotriña*

Manuel Gurutzeaga Arruabarrenak 37 urte zituen Hernaniko hilerriko parretan fusilatu zutenean; *Galerna* ontzian zihoala hartu zuten preso frankistek, beste hainbat bidaiariarekin. Astigartarra jaiotzez, makina bat aldiz ibili izan

zen Lopetegui alboan zuela bertsotan, eta honek oso gogoan izan zuen Zorigaitzez izeneko sorta hartan.

Urriaren 22an kantaldia antolatu dute Lopetegiren bertsoekin Irunen, eta me-rezi luke gerra garaiko horrelako bertsoei toki egitea: "...hitz neurtuetan esan nahi ditut / euskaldunak abesteko...", dio irundarrak.

Galerna ontziaren historia ezaguna da, batez ere bertan harrapatutako jendearengatik. Bidaiariaren artean zegoen Jose Aristimuño *Aitzol* apaiz euskaltzale nekaezina, torturatua izan ondoren Gurutzeaga eta beste hainbatekin hobi komun batean amaitu zuena 36ko udazken ilun hartan.

Pasaiaiko Pysbe arrantza konpainiaren flotakoa, gerrarako zereginetarako erabili zuten errepublikarrek *Galerna*, beste ontzi askorekin egin bezala: Do-

nostiako ebakuaziorako lehenik, eta koreo lanetarako ondoren. 1936ko urriaren 15ean baina, Pasaiait gertu zegoela *bou* frankisten esku erori zen egoera oso arraroan: "Haiek hiru kanoikada bota orduko *Galerna* entregatu egin zen", zioen Baionan zegoen Espainiako kontsulak txosten batean.

Antxoko moilan amarratu bezain laster hasi zen 50 pasaiairen lintxamendu publikoa. *El Diario Vasco* kokatsagorritu gabe energúmeno edo astakirten deituko dio *Aitzoli*, *La Voz de España* "arrain lodia" harrapatu dutela dio. Francisco Saizar donostiar mediku "lodikotea", José Jurico "tongo" egin duen pelotari ezaguna, Juan Antonio Landin "separatista"... Denek amaituko dute egoera tamalgarrian Donostiako Ondarretako kartzelan eta hiru egun geroago, urtaririlen 18an, horietako asko fusilatuak



izango dira. Beste askoren patua zein izan zen ez dakigu ordea.


Galernako 28 tripulatazaileak ere ez dira *El Diario Vasco*ren hitz pozoi-tsuetatik libratuko: “Ez dakite ezer, Babian daude. Mutiko hauei zerbait gertatzen bazaie, Jainkoak ez deza-la halakorik nahi, Limboan toki bat daukate prest”. San Kristobal ize-na du toki horrek, Ezkaba mendiko presondegia beldurgarria, eta mutiko haietako bi 1938ko ihesaldi fama-tuan ehizatuko dituzte animalia mo-duan.

Hilketa haien oroimena, *Aitzolen* heriotza, atzeraguardia frankista-ko krudelkeriaren sinboloetako bat bihurtu zen. Lopetegik berak azaldu zuen moduan, barkatu ezi-nezko basakeria –*Dierriyari eka-rririkan / ontzi ‘Galerna’ ordaña...*–. 1956an Javier Mendizabal almiran-te-ordeari enegarren domina jarri ziotenean, hoguei urte lehenago *Gal-erna* harrapatzen izandako parte hartzea nabarmendu zuten agin-tari frankistek. Erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako prentsa bulegoak bereha-la erantzun zuen: “Ez dute esaten nora eraman zituzten pasaiariak: gupidagabe torturatuak izan ondoren, Hernani in-guruetan fusilatuta zituzten arrazoi eta epaiketarik gabe”.

Traizioa eta dirua, beti dirua

Frankistek balentria gisa saldu zute-na, traizioak eta lukurreriak bultzata-ko amarrua besterik ez zen izan. Beti susmatu izan da *Galerna* etsaiaren esku utzi zutela bere kapitain eta ofizialak, baina orain nahikoa datu baditugu hori baieztatzeko.

Zantzuen zerrenda amaigabea da: ont-zia kostatik 17 miliatara zegoen, segur-tasun protokoloak agindutako 40 milia-tara beharrean; abiadura handiagokoa izan arren, norabidea aldatu eta fran-kistengana jo zuen astiro; ez zuen arti-leria erabili, ezta irrati seinalerik ere... Gainera, kapitaina eta lehen ofiziala az-pijokoan zebiltzala egiaztatzen duten sa-laketa eta dokumentuak daude. German Gómez kapitainak berak frankisten alde-ra deklarazio sinatua igorri zuen –Avi-lako Agiritegi Militar Orokorrean aur-kitu dugu– amarrua azalduz: “On Luis Pradera eta On Angel Gascuerekin izan nintzen Baionan, eta beraiekin ados jarri nintzen ontzia berreskuratu zezaten”.



ZERREDA ARGITU GABEA

Espainiak Baionan zuen kontsula-tuak zerrenda bat egin zuen *Galerna* frankistek ontzia harrapatu zutenean ustez bertan zeuden pasaiariekin (irudian). Horren ondoren Euskadiko Gobernuak ere egin zuen beste bat oso antzekoa. Batean zein bestean azaltzen diren pertsona asko fusila-tuak izan ziren Ondarretako kartze-latik “libre” atera ondoren (Raimun-do Gamboa, Francisco Saizar, Tomas Larrinaga, Juan Miranda, Jose Aristi-muño *Aitzol*, Juan Antonio Landin...). Baina zer gertatu zen hor azaltzen diren beste askorekin? Non eta nola amaitu zuten? Paper horretako zati handi bat iluntasunak estalita dago oraindik.

Historia honen biktimarioez gutxi dakigu, baina biktimez askoz gehiago ere ez

Pradera eta Gascue, Pysbeko man-datari eta donostiar jendarteko aberaskumeak ziren. Eginahalak egiten ari ziren Defentsa Batzor-deak konpainiari konfiskatutako bakailau-ontziak bereganatzeko, eta horretarako ez zuten kezka handirik izan barruan zeuden pa-saiarien destinoarekin. Dirua, beti dirua.

Baina Gómezen asmoak jakinak ziren –Baionako kontsulak galde-ra zorrotzak egin zizkion mesfida-ti– eta ihes egin zuen. Haren orde-z, lehen ofiziala zen Jorge Martín-Po-sadillok egin zuen lan zikina, eta urriaren 15eko ilunabarrean ontzia entregatu zuen Baionatik Bilbora zihoala. Martín-Posadillok ez zuen ezkututzen faxistenganako begiru-nez; Gipuzkoa oraindik errepubli-karren menpe zegoenean arrantzale anarkistak bere bila joan ziren eta Pasai Donibaneke batzokian kukutu behar izan zen. *Galernaren* traizioa egin eta gero alde frankistan borro-katu zuen; 1937ko martxoan adibi-dez, itsas armadako ontzi-alferez gisa ageri zaigu Espainiako aldizkari ofizia-lean. 1939an, berriz, “Pasaiako bakailao faktoriara” itzuli zen. Hor galdu dugu bere lorratza.

Historia honen biktimarioez gutxi da-kigu, baina biktimez askoz gehiago ere ez. *Galernan* zihoazen dozena bat la-gun gutxienez fusilatu zituztela kasik segurutzat eman daiteke (ikusi goiko koadroa). Aitzitik gauza ugari daude oraindik argitzeko –haien gorpurik ez da azaldu Hernaniko hilerrian–, baita egiteko ere, eraildakoen senideek pasa-tako sufrikarioaren kontakizuna osatu gabe baitago.

Nerea Pérez Ibarrola historialariak ARGIAren ale honetan (12. orr.) fran-kismoaren errepresioaz hitz egitera-koan dio “datuak hildakoen kopurue-tan” gelditzen direla, haien familiek izandako bizimodu gogorra kontuan hartu gabe. Kontuan hartzekoa baita, adibidez, *Galernako* pasaiariekin ba-tera hil zuten Jose Maria Elizalderen alaben testigantza: ama dirudik gabe geratu zen, haren mertzeriari boikota egiten baitzioten “gorriaren” estigma-gatik; eta sinarazi zioten senarra us-tekabean hil zutela kalean tiroz, Her-nanin fusilatua izan zela jakin arren. Zorigaitzaren zorigaitza. ■

Justu Egune

BESTE BILBO BATEN OIHARTZUNA

Gezurra dirudien arren, Bilbon dena ez da porlana, autoak eta zarata. Hiriaren mugen barruan, baserri auzo batzuek XXI. mendera arte iraun dute eta haiekin batera, antzinatik datozen ohiturek ere bai. Arbolantxa auzoan, esaterako, euskal giroko erromeria egiten dute urtero, Justu Egune. Mahats orrien itzalean, trikitilariak eta bertsolariak lagun, azken hatsa ematear den Bilboko jatorrizko euskalkiaren doinua entzuteko aukera ederra da.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Dabi Piedra

Industrializazioa iritsi zenetik, hiritartze prozesuak ez du etenik izan Bilboaldean. Itsasadarraren ertzeko hiri kokorra, Zazpi Kaleak ardatz zituen hura, metropoli bihurtzeraino hazi da, inguruko landa eremuaren kontura. Behinola udalerrri independente izan ziren Deustu, Abando eta Begoña irentsi zituen Bilbok eta mendi magaletako ortu eta basoak auzo jendetsu bilakatu ziren. Ingurune malkartsua da, ordea, Bilbo ingurua, eta urbanizazioak ezin izan ditu goiko auzo batzuk harrapatu. Auzo horietan baserriak, larreak eta basoak dira oraindik nagusi.

Aurrera egin baino lehen, komeni da argitzea ametsetako oasiak ere ez direla auzo horiek. Euskalduntasun puruaren edo industrializazioaren aurreko ohitura garbien bila hara jotzen duenak jai du. Egia da behinola Bilbo inguruetan hitz egiten zen euskarari Seberetxe eta Arbolantxa auzoetako baserri batzuetan eutsi diotela. Baina hori bezain egia da transmisioa aspaldi eten zela eta hitzun zahar batzuk baino ez direla gelditzen. Populazioak beherakada nabarmena izan du, gazteak hiriguneko auzoetara joan dire-

lako, eta baserritik bizi direnak gutxi dira. Hala ere, beste Bilbo hori bizirik dagoela gogoratzea eta aldarrikatzea dagokigu, hori ere hiriaren memoriaren parte baita.

Bagoaz, beraz, Arbolantxa auzora, Justu Egunaren aitzakian, abuztuko larunbat sargori batean. Pa...Ya! konpartsaren ahaleginari esker eutsi ahal izan zaio erromeriaren tradizioari. Iturritxualde mendiaren aldapetan sakabanatutako baserri batzuek osatzen dute auzoa, Otxarkoagako etxebizitza-bloke erraldoien gainean. 1924ra arte, Begoñako udalerrriaren lurak izan ziren horiek.

Txakolina izan zen garai batean Begoñako Errepublikako produkturik preziatuena. Hala, inguru horretako herri-tarrei mahatsorri ezizena ematen zaie. Goikoetxe baserria, Justu Eguneko ekitaldien erdigunea, txakolingintzarako prestatua dago: Etxe ataria mahatsondo hostoak eta adarrak zabal daitezten egokituta dago, txakolina egiteko mahatsak goxo-goxo hazteko modu aiproposean. Gerizpe atsegin horretan jarri da abadea, meza emateko. Paraje honetan, bazter guztietan dago istorio ezezagunen bat, nork deskubrituko



zain: Alboko baserria, Bekoetxe, Tomas Zumalakarregiren tropen kuartela izan omen zen Lehenengo Gerra Karlistan (1833-1840), Bilboko setioan. Kontuan izan behar da, XIX. mendean, Begoña herri karlista zela, Bilbo liberalaren aldean. Gerra hartako kolperik latzena, haatik, Begoñan bertan jaso zuten karlistek, han zauritu baitzuen bala galdu batek Tomas Zumalakarregi jenerala, eta horren ondorioz hil zen.

Mezaren ondoren, Arkaitz Estiballesen eta Etxahun Lekueren bertsoak entzun ahal izan dituzte bertaratutako guztiek, baita txalaparta doinuak ere. Aurtengo protagonista nagusia, baina, 91 urteko Manolo Legina izan da. Arbolantxan jaio-tako trikitilari honek urteroko hitzordua du Justu Egune eta aurten ere ez du hutsik egin. Antolatzaileek omenaldia egin diote, auzoari egindako ekarpena eskertzeko. Goikoetxe baserriko etxeko andreak, Arantza Zaratek, ekitaldirako propio egindako txapela jantzi dio soinu-jole beteranoari. Oso pertsona maitatua da Legina, agurtzera eta zoriontzera hurbildu zaion auzokide piloak adierazten duenez. Adinak hatzak moteldu dizkio,



baina ez festarako gogo. Hala, pieza batzuk jo ditu trikitiarekin, bertaratutako guztien gozamenerako.

“Atzamarrak, ai atzamarrak!”, kexatu da Manolo Legina, garai bateko trebetasuna gogoan. Soinua jotzea gero eta zailagoa zaionez, panderoa eta kainabera jotzen hasi da orain. Ez da oso tresna ezaguna kainabera, baina Euskal Herriko txoko batzuetan eutsi diote hura jotzeko ohiturari. Goikoetxeko mahatsondoen itzalean, hirukote polita osatu da giroa alaitzeko: Koldo Etxebarriaren trikitia, Gaizka Molinuevoren panderoa eta Manolo Leginaren kainabera.

Eguna biribiltzeko, bazkaria antolatu dute Bekoetxe baserriko landetan. Adin guztietako jendeak parte hartu du aurtengo Justu Egunean, tartean hainbat umek. Haiek izango dute beste Bilbo honen memoriari eusteko ardura. Ez, beharbada, Bilbon mendez mende hitz egin den euskalki zaharrean. Baina bai euskaraz, hiriaren sustraiak gogoan. Alderdi asko baititu Bilbok eta urtero Justu Egunean ikusten dena, gehienentzat ezezaguna izanagatik, Guggenheimeko titanioa bezain baliotsua da. ■



MANOLO LEGINA

“LEHEN ARBOLANTXAN DENA ZEN EUSKARAZ, HIKA HITZ EGITEN GENUEN”

San Justo bideko Atxetas baserrian jaio zen Manolo Legina, orain dela 91 urte, Begoñako lurrak Bilboko udalerraren parte bihurtu ziren garai beretsuan. Auzoan izan diren aldaketen lekuko izan da soinu-jole beteranoa. Euskararen transmisioa bizi-bizirik zegoeneko garaiak gogoan ditu. Umea zenean Arbolantxan euskara entzuten ote zen galdetu eta berehala erantzun du: “Euskara entzun? Lehen hemen dena zen euskaraz! Gainera, hika hitz egiten genuen, badakizu, hik egin dok eta horrela”. Penaz dio gaur egun ez duela gazteen artean hika entzuten.

Txikitan gaztelaniaz ez zekiela ere azaldu du Leginak, “uste dut katezismoa ikastera Begoñara joaten hasi nintzenean ikasi nuela erdaraz”. Bilboko jatorrizko euskaraz hitz egiten duen hiztun apurretako bat da gaur egun. Hizkuntzalari batzuk ibili izan dira auzoz auzo hizkera hori aztertzen nahian. Iñaki Gamindek, esaterako, Buian, Larraskitun eta Arbolantxan aurkitu zituen hiztun batzuk. Auzotik auzora desberdintasun txiki batzuk dauden arren, ikerketek garbi utzi dute Nerbioi ibarreko euskararekin duela lotura handiena Bilbokoak, hau da, Arrigorriaga, Basauri, Zaratamo eta Ugaokoarekin.

Sei hilez baino ez zen eskolara joan eta, kontatu duenez, Santa Marinako

abadeak irakatsi zion Leginari idazten eta irakurtzen. Musikarako zaletasuna ere orduan sortu zitzaion, inguruko ospakizunetan: “Nik entzuten nuen trikitia eta pentsatzen nuen, ‘zergatik ez dut nik berdin egingo?’”. Besteei entzunda ikasi zuen soinua jotzen, “belarri ona nuen, eta memoria ona ere bai”.

Lehenengo soinua 16 edo 17 urterekin erosi zuela gogoan du Leginak, “15 pezetan erosi nuen, hiru ogerleko”. Harrezkero, Euskal Herria goitik behera ezagutu du, jairik jai. Ipar Euskal Herrian maiz ibili dela dio eta, beste muturrean ere, Karrantzan, makina bat alditu ditu bazterrak. Ondo gogoan du Madrilera, Televisión Española-joan zirenekoa: “Txilibrin albokaria, Guillermin de Artxanda pandero-jotzailea, Boni txistularia eta ni, lauok joan ginen, Euskadiren ordezkari”.

Arbolantxatik mundura, trikitia lagun, pasadizo andana ditu Manolo Leginak gogoan. Adibidez, trikitia ostu zioteneko estualdia. Ezagun bati esker, egun batzuk geroago berreskuratu zuen, baina badaezpada, bere izena idatzita darama orain erabiltzen duen soinuan. Txakolin-degi zaharretako mahatsondoen itzalean entzuteko istorioak dira horiek, Bilboko berezko euskara bitarteko dela, hiriko porlanezko oihana begien bistan, hain hurbil eta hain urrun.

IKUS TERAPIAK

"%100 IKUSTEA EZ DA ONDO IKUSTEA"


Eskolako errendimendua begien errendimendurekin lotua egon daiteke. Ikusmen arazoak, ordea, ez dira detektatzen soilik, zenbat eta noraino ikusteko gaitasuna dugun kontuan hartuta.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Sarri, ikusteko gaitasunaren arabera ebaluatzen dugu ikusmena: urrutikoa ikusteko zailtasuna duenak miopia izango du. Gertukoa argi ikusten ez duenak hipermetropia. Ikusmen distortsionatua duenak, astigmatismoa. Horiek dira detektatzen diren hiru ahulezia nagusiak, betaurrekoekin konpondu ohi direnak. Baina arrazoi gehiagorengatik funtziona dezake bistak desagoki.

Azkoitiko (Gipuzkoa) Iriondo Optikan beste ikusmen ahulezia batzuk detektatu eta lantzen dituzte Ikus Terapia egitasmoaren bidez. "%100 ikustea ez da ondo ikustea. Begiaren gaitasunak nola dauden aztertu behar da etekin handiagoa lortzeko", diote Estibaliz Ariznabarreta eta Marian Iriondo optometristek. Terapia horren bidez arazo muskularrak lantzen dituztela adierazi dute: "Begi gimnasia bat da eskaintzen duguna". Modu kontrolatuan errepikatzen diren ariketak dira, norberak etxean 20 bat minutuz lantzekoak. Tratamenduak hiru hilabete irauten ditu. Pertsona, arazoa eta motibazioaren arabera faktoreak alda daitezkeela gehitu dute. Gero, jarraipena egiten dute.



Ikus Terapia egitasmoan umeek hartzen dute bereziki parte, eskolan sumatzen diren zenbait gabezia ikusmenarekin loturik daudelako. Arazoak aurreikusi eta gaitasun bisualak lantzea ezinbestekoa da, Iriondo Optikako kideen hitzetan.

Fokuratze-disfuntzioez, ikus ardatzen koordinazioaz, begien mugikortasunaz eta jasotzen den informazioa ulertu eta interpretatzeaz ari dira adituak. "Guztien koordinazioa behar da ikusmen sistemak ongi funtzionatu dezan", diote. "Bi begiek bakararra balitz bezala lan egin behar dute".

Honek guztiak eskolako errendimenduan eragina duela ziurtatu dute. Horregatik gehienbat, haurrekin egiten dute lan. "Lehenago jotzen dugu logopedara, hiperaktibitatera, ikasle txarra dela edo gustatzen ez zaiola esatera ikusmen arazoak dituela pentsatzera baino", adierazi du Iriondok. Baina eskolan ikasten denaren %70a begietatik egiten dela azpimarratu dute eta, hortaz, "ezinbestekoa" dela gaitasun bisualak aztertzea. Adibidez: begien mugikortasuna eskasa baldin bada, irakurtzeko azkartasuna edo zehaztasuna oztopatuko du, baita begirada arbeletik liburura aldatzeko unean ere. Objektuak automatikoki fokuratzen ez badira atentzio bisuala mantentzeko arazoak izango dira. Adibide hauek kirolean ere eragina izan dezakete.

Guraso zein irakasleei gaia kontuan hartzeko gonbitea egiten diete bide batez: "Arazoak aurreikusteko beharrezkoa da arazoa egon daitekeela ulertzea".

"Lehenago jotzen dugu logopedara, hiperaktibitatera, ikasle txarra dela edo gustatzen ez zaiola esatera ikusmen arazoak dituela pentsatzera baino"

Horretarako test azkar bat egitea proposatzen dute: begi gorriak, azkura edo buruko mina; irakurtzean hatza jartzea, motela izatea edo ez gustatzea; letrak nahastea edo lerroak saltatzea; burua okertuta irakurtzea edo begi bat estaltzea; eskulanetan eta kirolean trebea ez izatea; ikasten orduak pasa arren etekin eskasa ateratzea; eguna pasa ahala nekea areagotzea; eta kontzentrazioa mantendu eta gelditi egoteko arazoak izatea.

Sintoma horietatik bi sentituz gero, optikara hurbiltzeko aholkua ematen dute. Horrela, arazoa norberak etxean konpon dezake. ■

Mari Paz Arrula Ruiz [komunean grabatua]



Eider Madina Berasategi
@xaukenaxauk

“Intimitatean ere, emakumeok libre sentitu nahi dugu”

Mari Paz Arrula naiz, tafallarra, eta adin guztietako beste 150 emakume baino gehiago bezala gure herriko taberna bateko komunean grabatua izan nintzen, lokalaren jabeak jarritako kameren bidez.

Bertako langileak ohartu ziren trikimai-luaz eta haiek izan ziren nagusia salatu zutenak. Txalotzekoa iruditzen zait haien jarrera ausarta, lanpostua kolokan egonda ere egoera ez estaltzeagatik.

Gertaeraren berri izan genuenean, kasuan inplikaturako guztiak elkartu ginen, zer egin eztabaidatzeko. Ez da batere egoera erraza izan, herri batean, guztiok ezagunak izanik, oso zaila baita salaketa jartzea. Nahi ala ez, eraso-tzailearen familia eta ingurukoak ere zipriztintzen ditu kasuak eta prozesua gogorra izan da.

Gainera, gaia delikatua da, denok ez dugulako berdin pentsatzen; eta norberak bere hautua egin du. Batzuek nahiago izan dute ezikusiarrena egin eta lehenbailehen gaia ahanzi; beste batzuk, aldiz, publiko egitearen aldekoak izan gara.

Askok oso gaizki pasa du eta irudi horiek non eta noren eskuetan egon daitezkeen pentsatze hutsak beldurtu egiten ditu. Horrez gain, halako kasuen ondorioz jendartean mesfidantza sortu da eta emakume askok aldagela, dutxa eta komun publikoetan segurtasun eza sentitzen du.

Historikoki emakumeon intimitatea jomugan egon da, eta horren adibide dira zelata-zuloak. Baina teknologia garatzen eta merkatzen joan den heinean, eskuragarriagoak dira tresnak eta era-



soak eraldatu egin dira. Euskal Herrian halako grabazio ugariren berri izan dugu azken urteotan; eta zehazki, sei hilabete-tan sei kasu. Datua ikaragarria iruditzen zait, badakigulako publiko egin ez diren halako gehiago ere badirela.

Ni kartzelaren kontra nago, baina argi ikusten dut halakoak salatzen ez baditugu egoera ez dela sekula aldatuko. Ez gabilta etekin ekonomiko bila, horri uko egingen nioke, baina horrelako erasorik ez dadila errepikatu nahi dugu, intimitatean ere libre sentitzeko.

Gainera, legeak intimitatearen aurkako erasotzat soilik hartzen ditu kasu hauek, ez indarkeria matxista gisa. Kamera txiki bat edonork eskura dezake, eta nahi duen lekuan ezkutatu. Baina ez da kasualitatea emakumeok ez egitea. Teknologia berrien erabilpenarekin menperatze nahiaren funtsa errepikatzen da –gizonak indartsuago izatearen betiko aitzakia deuseztatuz, gainera–.

Argi ikusten da zigor-kodean hutsune handia dagoela alor honetan. Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuarekin harremanetan jarri gara eta bertako

Berdintasun Batzordea lanean ari da gaia landu eta legean esku-hartzeko.

Iragan maiatzaren 5ean Parlamentuko lan saio batean izan ginen gure kasua azaldu eta legedia alda dadin eskatzeko. Izan ere, 2004. urteko Espainiako genero indarkeriaren gaineko legea (abendua-ren 28ko 1/2004 legea) oso zaharkitua geratu da. Bikotekideek edo bikotekide ohiek eginiko erasoak bakarrik hartzen ditu indarkeria sexistatzat eta egungo sisteman gertatzen diren beste hainbat eraso kanpoan uzten ditu.

2015eko indarkeria matxistaren kontrako Nafarroako Legeak (apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea) modu zabalagoan eta gaurkotasun handiagoz biltzen eta ulertzen ditu erasoak. Hala ere, hankamotz geratzen dela iruditzen zait, errealitatean ematen diren indarkeria mota ugari ez dituelako jasotzen.

Instituzioek ongi hartu gaituzte eta hori eskertzekoa da, entzun digutelako eta lanerako prest agertu direlako. Baina azaldu diguten sentsibilizazioaz gain, gauzak aldatzeko konpromisoa eskatzen dut. ■

Alez lekale, txitxiriodia



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Neguaeren amaiera urrunean izerdi be-
rria bor-bor hasi zen hartatik joan be-
rria den ilbehera arte, ugaltu nahi ge-
nituen landareen aldaxkak itsasteko,
lekaleen hormonak erabili ditugu ba-
rra-barra. Lekale jende hori oso egokia
da langintza horretarako: dilista (*Lens
culinaris*), txitxirioa (*Cicer arietinum*),
babarruna (*Phaseolus vulgaris*)...

Sendi zabala da, ordea, alea leka ba-
rruan ematen dutenen hori: baba (*Vicia
faba*), ilarra (*Pisum sativum*), hirusta
zuria (*Trifolium repens*), hirusta gorria
(*Trifolium pratense*), pagotxa (*Trifolium
incarnatum*), alpapa (*Medicago sativa*),
erua (*Vicia ervilia*), ailorbea (*Trigone-
lla foenum-graecum*), itsabalki arrunta
(*Melilotus officinalis*) eta itsabalki zuria
(*Melilotus alba*), usobelar horia (*Lotus
corniculatus*) eta usobelar gorria (*Tetra-
gonolobus purpureus*), aixkola (*Lathyrus
sativus*), astailarra (*Lathyrus aphaca*),
astorkia (*Onobrychis viciifolia*), itxioko-
rria (*Ononis spinosa*), zalkea (*Vicia sati-
va*), suila (*Hedysarum coronarium*)...

Mordoxka bat faltako da zerrenda ho-
rretan. Izan ere, gure ahosabaiak ahaztu
dituen zenbat lekale landu izan ditu gure
kulturak? Geu garen azienda nagusiak ja-
ten zituenak batzuk, baina baita gero geuk
jango genituen azienda xeheak zein la-



Txitxirioa (*Cicer arietinum*). Argazkiko hauek Gerrikako (Bizkaia) Arantza Bilbaok etxean egindakoak dira.

rriak jatekoak ere. Ahaztu horien artean,
jende jakin bakan batzuen ahotik soilik
entzun izan dudak txirta daukat nik go-
raintzian. Ez dakit zein landare den txirta.
Lekaledunen artekoa dela bai. Batek lore
horiak dituela ere esan zidan, txorten luzet-
baten punttan multzoka bildutakoak, agi-
danean. Hortik aurrera zipitzik ere ez.

Geuk jaten ditugun lekaleetara itzuliz,
milaka urtean gure etxeetako emakumeek
hautespen kultural zehatza egin dute. Ho-
rren ondorioz, ale gero eta handiagoak
goxoagoak samurragoak finagoak eskain-

tzen dituzten lekak emateko aldaerak edo
barietateak bereizi eta gorde izan dituzte.
Bidean geratutakoak ere izango dira. Be-
rriak ere badatoz, ordea. Lehengo batean
erakustera joan eta lezioa hartu nuen Biz-
kaian; Arantza Bilbaok eman zidan bere
lanaren erakusgarria: etxean egiten hasi
den txitxirioa. Etxea Munitibarko Gerrika-
ko Gerrikagoiti da, XVI. mendearen hasie-
rako. Ehunka eta ehunka urteko katea.
Amonaren amona eta haren amona, eta
amona, eta amona... Malkoei eutsi ezinik
idazten dut hau... ■



Liburu azoka

Eibarren, urriaren 14tik 23ra Unzaga plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*

JOSEBA LARRATXE BERAZADI, ALTZA PORRUZ

"Ez fidatu esku garbiak dituen marrazkilariaz"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Arantxa Iturberen ipuin baten moldaketa egin duzu *Altza Porrun*. Baratzeak ez al zaitu nahikoa inspiratu istorioren bat asmatzeko?

Egia esan, erabat *kalekumetartuta* nago. Etxean lorategia bai, baina inoiz ez dugu baratzerik izan, eta lagunaren baten baratzean laguntzen saiatu naizen guztietan patatak aitzurrarekin erdibitzea besterik ez dut lortu. Beraz, Jakobak elkarlan hau proposatzean, korrika jo nuen *Bizi Baratzea* liburura inspirazio bila. Eta kasualitatez (edo ez), liburuaren sarre-rako Arantxaren ipuinetan lotura bat ikusi nuen.

"Beguratu eta ez ikusi" izena du zure kontakizunak. Zer da ikusten ez duguna, ba? Buelta emango diot galderari: zer da ikusten duguna? Azalekoa, normalean. Kosta egiten zaigu aurreiritzietatik harago sakontzea. Sarritan esaten digu Jakobak landareak ere jendea direla. Eta beti hor ditugunez, zelatan, suposatu dut haiek guk baino gehiago ikusten dutela, begirik izan ez arren.

Baratzeari eta barazkiei begira denbora asko pasatu al duzu *Altza Porru*rako marrazten hasi aurretik?

Nire komikiko bineten hondoan baratze bat ageri da, eta izerdi ederrak bota ditut hanka-sartzerik ez egiteko. Adibidez, garai desberdinetan landatzen diren bi barazki batera ez marrazteko. Nola ez, *Bizi Baratzea* alboan izan dut lagungarri.



Hilketa bat ezkutatzeko toki egokia dirudi baratzeak, ezta?

Ez dakit oso egokia den, baina esango nuke ohikoa izan daitekeela. Horrenbeste estimatzen dugu intimitatea, auskalo zer ezkutatzaren den bizilagunaren hormen atzean. Hor ere, begiratu eta ez ikusi.

Zikintzen al ditu Joseba Larratxek eskuak lurrez noizbait? Edo margoen tintaz soilik...

Haurra nintzela *silbestreagoa* nintzen, baina aspaldi da eskuak ia tintaz bakarrik zikintzen ditudala. Hori bai, ez zaitezte fidatu esku garbiak dituen marrazkilari batez.

Liburuko egileen aurkezpenean kalabaza aurpegia jarri dizute. Sentitzen al zara identifikatuta?

E! E! E! Kalabaza ez, KALABAZINA! Kalabaza baino puska lirainagoa eta lerdinagoa. Ez dakit Asiskok zer zuen buruan kalabazinaren pare marraztu ninduenean, baina espero dut nire aurpegi gazteagatik izatea... Forma falikoa-rena erabat anekdotikoa da. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Urriak 21: Hondarribia

18:00etan, Endanea Garden Centerren (Jaizubia auzoa 40).

Urriak 23: Bera

Lurraren Eguna Azokan.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

Izena eta izana ezbaian

2

Izena eta izana ezbaian: gida praktikoa

Joan den apirilean aurkeztu zuten Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek euskal izendegia eta sexuen arabera bereizkeria lantzeko gida praktikoa. Euskarazko izendegiaren binarismoaren inguruko gogoeta piztu nahi dute gida honekin. Izenak gure izaeran eragiten duenez, gure izana eraikitzeko elementu bat gehiago da eta beraz, gidaren egileek, sexuaren arabera, izenak ezartzea gaitziteza proposatzen dute. Gidan horretarako estrategiak zehazten dira, hala nola,

ospitaleetako inskripzioak baliatzea, ustez erregistroan baino errazago onartuko dituztelakoan Euskaltzaindiaren araua betetzen ez duten aukerak; froga gisa izen abstraktuak, fikziozkoak edo toponimoak erabiltzea; etab. Gida honetan izen zerrenda bat ere ageri da, erabiltzaileekin batera osatzen joateko asmoaz sortu dena. ARGIAko kideen artean lau gida praktikoa zozketatuko ditugu urrian. Argazkian, gida praktikokoaren egileak, Donostian egindako aurkezpenean.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA

(+34) 943 59 09 02
bilgunefeminista.eus

#feminismoa
#euskaltzaletasuna
#lurraldetasuna

Hilabeteko honetako sariak

1



Arizmendi Ikastolaren
Konfiantzaren Pedagogia liburua
4 liburu

2



Bilgune Feministak argitaratutako
Izena eta izana ezbaian
4 gida

3



EHNEk argitaratutako
Ardatza aldizkaria
4 harpidetza

4



Euskal Memoria Fundazioaren
Euskararen kate hautsiak
2 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIAren inbasioa beste hedabideetan



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Espioitza lanik eraginkorrenak barrutik egiten omen dira. Bestearen tripak ondo ezagutu, ahalik eta informazio gehien jasotzeko; hori izaten da helburua. Al-derantzizkoa egiten duenik ere badago, ordea, eta gurean perretxikoak bezala ateratzen direla dirudi. Noiz ikusi da komunikabide batek bere informazioa beste komunikabide batean zabaltzea? Ez al da hobe bakoitzak bere bidea egi- tea? Bakoitzak bere kazetariekin bere informazioa landu eta bere komunika- bidea sendotzea? Nik ARGIAko lagunei ere galdera horietan bota dizkiet, eta bueltan etorri zait betiko diskurtsoa: kolaborazioa, hedabideen arteko elkar- lana, komunitatearen indarra, gure edu- kiak jendarteratzeko beste aukera bat, gaiak gure baloreetatik lantzeko... Azke- nean sinetsi egin beharko diet!

Total, errepasoa egiten hasi garela erredakzioa zenbat kidek kolabora- tzen duten beste medioetan, eta kontu- ratu garela ia denek dutela beren gloria unetxoa batean edo bestean. Batzuk irrati- ra jo dute: Euskal Irratietan Goiz Berri saioan astero entzun daitezke

ARGIAren asteko azala komentatzen; besteren bat Xorroxin irrati- an aritzen da asteko bospasei gai potoloenez; Euskalerria irrati- an ere uste dut gure kideren batek parter- en bat edo beste baduela Reyes Ilintxetaren (hori ere ARGIAko kolaboratzailea, portzi- erto) eta Pello Argiñaren saioetan; Euskadi Irrati- ko Faktoria saioan asteart- eren batean topatu dut ARGIAko bat; Info7 irrati- ak ere gurean badu tiroia, eta ba- tetik Nekane Zinkunegik gidatutako Zebrabidea saioan eta bestetik Kale- gorrian emanaldian ere tertuliakide orojakile paperean baditugu ARGIA- kide batzuk sartuta; eta ahaztu gabe Bilbo Hiriak eta Halabedik elkarlanean osatutako Hizpidea eta Bizkaia irrati- ko Goizeko Izarretan saioetan dauzkagun satorrak ere.

Idatzizko kolaborazioen bat ere de- tektatuta daukagu Goienan, Directan eta Diagonalen.

Eta horrez gain, badira gutxi batzuk kamera aurrera salto egin dutenak. Horiek ETB1eko Ahoz Aho saioan eta 11amaika Telebistan ikusi ditut. ■



Argia Egune-ko bideoa eta argazki galeria ikusgai argia.eus-en

Lander Arregik eginiko bideoak biltzen ditu harpidedunen adierazpenak. Dani Blancoren argazkitan gogoratu ahal- ko ditugu ekintzen une gorenak. Biak erraz aurkituko dituzu www.argia.eus/argia-e-guna helbidean.

Eskerrak ezker-eskuin

Ondarroako festan modu batera edo bestera lagundu genuenok, dagozkigun eskerrak jaso ditzakegu internet bidez, *Argiaren Barrenak* blogeko Argia Eguna egin zenuten saregileei, mila esker! arti- kulan.

eta hurrengoa non?

Aurtengo Argia Eguna agurtzerako ai- rean da galdera. Proposamenik bai? harpidetza@argia.eus helbidean oso gustura hartuko ditugu hurrengo Ar- gia Eguna zein herritan egin eta zergatik azaltzen duten mezuak. Edo errazago bazez, deitu (0034) 943 371 545 zen- bakira.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.

MARKO POLO KONTRAKO NORANZKOAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Pekin, XIII. mendea. Marko Poloren hitzetan, “munduko hiririk handiena, ederrera eta aberatsena” zen, baina garai hartan Khanbaliq (Khanaren hiria) zuen izena, Kublai Khan buru zuen mongoliar inperioaren hiriburua baitzen. Hantxe jaio zen 1220. urte inguruan Bar Sauma, gerora, monje nestoriotarra izaki, Rabban (mais) titulua jaso zuena.

Rabban Markos dizipulua lagun, Lur Santura bidaiatzea erabaki zuen. Pekinetik Jerusalemerako 7.000 kilometrotik gorako bidean, Gobiko basamortua inguratu, Himalayako goi-ordokiak zeharkatu eta hainbat gatazka saihestu behar izan zituen. Behintzat, Zetaren Bideko karabanan laguntza eta Kublai Khanen beraren babes ekonomiko izan ziten abenturan.

Ez dakigu noiz abiatu zen Pekinetik, baina 1266an iritsi zen Pertsia Ilkhanerrira, zehazki Bagdadera. Handik urte gutxira Marko Polo merkataria veneziarra ere handik pasako zen, baina kontrako noranzkoan; bi bidaiariak ez zuten sekula topo egingo.

Bagdaden bost urte eman eta gero, bertako Ekialdeko Elizako Patriarka izendatu zuten Bar Sauma. Izendapena Ilkhanerriko buru Abaqa Khanek berretsiz behar zuen, baina gortera iritsi zenean, Abaqa hil berriaren seme eta oinordeko Arghun Khanekin bildu zen, eta hark oso bestelako asmoak zituen maisuarentzat.



Zaldi gainean Abaqa Khan, eta parean zutik, haren seme eta oinordeko Arghun Khan. Bigarrenak bidali zuen Europara Rabban Bar Sauma monjea zeregin diplomatikoak bete zitzen.

Arghun Khanek Europa kristauaren eta Ilkhanerriaren arteko aliantza egin nahi zuen mamelukoen aurka, eta Rabban Bar Sauma pertsona egokia zen horretarako: kristaua (nestoriotarra) zen, pertsieraz hitz egiten zuen eta Ilkhanaren aholkularien konfiantza zeukan.

Zeregin diplomatiko berria medio, 1287an abiatu zen Europara. Itsaso Beltza zeharkatuta, Konstantinoplan, Androniko II.a Bizantzioko enperadorearekin bildu zen. Parisen, Frantziako Errege Filipe IV.aren izan zuen elkarrizketa; Bordelen, Eduardo I.a Ingalaterrakoa-

rekin eta Erroman Nikolas IV.a aita santuarekin. Dignatarioari ohore guztiekin egin zioten harrera gorte guztietan, baina ez zuen itunik lortu. Mamelukoak baino arazo hurbilagoak zituzten eta fraidea esku hutsi itzuli zen Bagdadera.

Azken urteak Maragheko monasterioan eman zituen, bidaia txundigarrietan bizitakoa idatziz jasotzen, 1294an hil zen arte. Baina Marko Polorekin gertatu ez bezala, Rabban Bar Saumaren abenturak mende luzez ahaztuta egon ziren, XIX. mendean haren izkribuak aurkitu zituzten arte. ■



HAMSTERMAN

Te berdea vs. te beltza

Tea 1568an iritsi zen Britainia Handira eta jatorrizko te berdeak zein aldaera beltz berriagoak berehalako arrakasta izan zuten. Eskaera handia ikusirik gobernuak zerga astunak jarri zituen hostoen gainean, luxuzko produktuak bailiran. Ondorioz, alferrik galdutako tearen kontrabandoa zabaltzen zen, eta handik gutxira britainiarrek legez kanpoko te gehiago

kontsumitzen zuten legezkota baino. Hosto galduen itxura hobetzeko gehigarriak erabiltzen zituzten eta, te berdeak makillaje gehiago behar zuenez, koloratzaile toxikoak erabili zituzten maiz. Te berdearen kontsumoak lurra jo zuen. 1785ean tearen gaineko zergak nabarmen jaitsi zituzten, baina beranduegi zen: te beltza berdeari gailendu zitzaion. ■

Menderik mendeko eratorria

Euskarazko abesti zirragarri batek europar mito zahar baten aztarna dakarkigu. *Judu herratuaren* edo *Jüdiferraren kanta* plazaratu eta musikaz apaindu zuten Euritan Blai taldekoek, koplak zubereraz ahoskatzen zituztela. Egia erran, judu herratuaren istorioa Erdi Aroan errotzen da: munduan barna dabilenak, herioa galdua duenez, ezin du bitzta galdu.



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Gizakia, hondarrean, lurraren biribilean eratorrian higatzen doa, baztertua, ehi-zatua, zirikatua. Destino garratzaren hoberduna dela eranstean dute hizkuntza ezberdinetan garatzen diren ipuinek:

*Ote da mundu honetan deus ere gai denik
Judu herratuari konpara daitekeenik?
Nik ez dut uste baden nehon miserablerik
Haren zorteari hurbil daitekeenik...*

Zubererazko bertsioan jüdiferra deitzen zaio alderraiari, poetak gehitzen duela: *bera dela kausa düzü hola tormentatürrik*. Hogeita zortzi koplak zenbaitzen dira abestia paperean lapurteraz etzaten delarik, baina askoz gutxiago dira kantatuak.

Pertsonaia zardaia eta zarpaila gurutzatzen zutenak harritzen ziren bereziki bizarra zein luzea zuen ikustean. Langile arruntaren moldean bezitua zen, oskigileen taulierrarekin, zubereaz zehazten denez. Konkorra zen bizkarrere eta mila zortzi ehun urte konplitu berriak zituela agertzen ziren ostatura gonbidatzen zuten burgesei:

*Hemezortzi ehun urte baitut pasatiak
Hetaz izan zizte, oi, segurtatiak...*

Zutik, basoa altxatuz, xehetasun biografiko gehiago bihikatzen zituen La-

purdiko edo Zuberoakoa taberna tepue-tan, euskalki ezberdinetan:

*Israelgo herrian izan niz deitua,
Jerusaleme famos hirian sortua,
Satisfa bedi beraz zien izpiritua.
Jauna ni nuzie bai judu herratua.*

Literaturak dakar judu herratuaren inguruko mitologiaren lekukotasuna. 1228an Paris izeneko apez beneditarrak kontatzen du Kartafilius juduaren bisita San Albans monasteriora. Legenda hedatu zen Europan, XVI. mendetik hara, eta idazleek –batez ere alemanez 1602tik hara...- eratorrian zihoana Ahaswerus bataiatu zuten. Eratorriarena, madarikatze baten gisa ulertuko zen, Jesusen gurutzefikatzean parte hartu izana leporatzen zitzaielako judutarrei. Kristauek ez zieten barkatuko eta badakigu nola eta non bukatuko ziren anate-ma, irain eta laido uhin zitalak.

*Neure gaizki handia, erranen dut egia,
Gaizki tratatu nuen nik Jesus maitia;
Izan behar-bidian urrikalmendian
Zerbitxatu izan nuen krudelitatia...*

Bertsoetan bekatua izendatzen da: Jesussek, Golgotako kalbariorako xendran judutar zapatagile bati galdegin zion gurutzea pausatu ahal zuenez bere ate

ondoan. Ahaswerusek, buruaz, ezezkoa eman zion, Pontzio Pilatos erromatarren zakurrekin batera zaunka egiten zuela:

*Habil hortik aitzina, habil kriminela!
Berehala jaso zuen gaztigua Jesusen ez-painetatik:
Jesusek erran zerautan ordian berian
Mila urtez bederen, ibiliko hiz mundian...*

Kantaren entzule interesatu antzera zegozkien burgesek Jesusi eman zioten arrazoia:

*Dudarik gabe duzu ontsa merezitu,
Jaunak zituenean zu hola punitu...*

Ez dezagula ahantzi XVII. mendetik hara, protestanteen eta sorgin auzien garaia ahitu zenean, bortizki dakigunez, gure herrietan kristautasunik garratzena hedatu zela, puntu batez jansenismoz are zakarrago apaintzeraino. *Jüdiferraren baladak* erakusten du euskarara itzuli zen denboretan euskalduna jadanik sakonki fededuna zela.

Auzo berezi edo *aljamia* hertsietan kokatzen ziren judutarrak Euskal Herrian eta veneziar jatorrizko *ghetto* ize-na eman zitzaien guneeetan setiatuak Europan zehar. 1492an Errege Katolikoek Espainiatik eta Portugaldik hai-



zatu zituztenean Nafarroako lurretan aterpetzea lortu zuten petxa zerga ordaintzearen trukean: Tuteran, Lizarran, Iruñean, Iparraldeko Bastidan, Bidaxunen eta Baionan. Hemen ere sustraitu zen *Judu herratuaren kanta* aipatzen duen diaspora.

Baionara txokolatea apailatzeko metodoak ekarri zituzten. Baldintza gogorretan bizi ziren: gau oroz, Santizpiritu egurrezko zubia trabeskatu behar zuten Maubec aldera, hiri burgesean geratzea debekatzen zitzaielako. Oraindik ere ikusten dira judutarren presentziaren hatzak Baionan: 1836an eraiki sinagoga, bainu erritualak egiteko *mikve* delakoa, hilerri israelita Santa Gurutze bidean eta lurlean bil daitekeen norbaitek galduriko *kippa* zuri-urdina.

Baionako judutarren kultura eta fede jaidura portugaldarra da oinarrian. Torah zaharra kontserbatzen da bertan, han edo hemen entzuten diren sefardien ohidurazko kantez gain. Agian ladinio hizkuntzaz ari ziren gehienak, hots hebrearraren eta gaztelaniaren arteko nahasketa linguistiko batean.

Euskal Herri Iparraldean bildu zen *Judu herratuaren* kopia saila: Azkuek Baxenabarreko Orabarren (Oragarre ala?) hauteman zituen lehentze, bai eta Mugerren eta Hazparden. *Nehor* izengoitiaz ezaguna zen Jean Barbier, Dassance, *Gure Herria* Uztaritzeko aldizkariaren orrialdeetan eta Aita Donostia interesatu zitzaizkien. Honek, 1927an, Atharratzeko Bedekarratz bati jaso zion zubererazko aldaera, Euritan Blai taldekoek musikaz apaindurik eskaini zutena:

*Bai ai Isak Lakere
Düzü ene izena,
Jerusalemen sortia*

*Herri hanitx aipatia,
Jesus jaunak haitatia:
Eta ni, hanko semia,
Beti malerus nizana,
Mündian paregabia.*

Zubererazko bertsoetan Isak Lakere deitzen da eratorrian dabilena. Ez zen baitezpada Barkoxe, Maule eta Larraire artean aurkitzen, kantaren harian Austriako Viena hiria azaltzen delako, baina orduan, gaur egun bezala, jakintza herrikoiez hanturiko almanakak irakurtzen zirenez, bertsolari bat edo beste inspiratu zukeen historia triste eta malenkoniatsuak.

*Hartüren dit edatera
Bi kolpüz ziekilan.
Oi! parka nabastarria
Ikusirik borondatia
Ziek nula arrafüsa
Ezin jarten niz ziekila.
Hau da düdan doloria
Edo konfüsionia.*

Lurraren azala inguma traketsaren moduan urratzen zuen, eta menturaz duen judu herratuaren itzalak belau-naldien gogo-muinak inarrosi zituen, aldi berean madarikazioa eta edozein bideetatik loturarik gabe aske ibiltzeko aukera irudikatuz, aske, pobre eta kasik biluzik.

Ez da gehiago *Judu herratuaren kanta* aditzen. Ez zerion alta antisemitismo sentimendu larririk, baina naziek zedarritu exterminazio zelaietara sei milioi judutar eramango zituen mendeetako gorroto diskurtsoen elementuak kausitzen dira, Balbesbergen 1940an ekoiztu *Süss Judua* filma hartan bezala. Ez dezagula ahantzi euskaldunok, halaber,

parte hartu genuela sarraski horretan *Eskualduna* astekariko apaizek juduen eta framazonen kontra idazten zituzten artikulu sutsuak gazura bailitzan irentsiz. Bigarren Mundu Gerraren ondoko urteetan oraino Jon Mirandek judutarrei harrika eginen zien eta Gabriel Arestik haien suertea gutiziatzen zuen 1963ko *Apur dezagun katea* poesian:

*Euskararen asturua
Ezta gauza segurua:
Askozaz hobekiago
Dabil munduan judua.*

Urrun gaude aitzineko gizaldietako urriketik: judu herratua ehun urteetarik behin herrietatik pasatzen zenean jendaldean soa kitzikatzen zuen, koplak sortzeraino edo beste hizkuntzetan zeudenak euskarara ekartzeraino. Hala ere, ildo horretatik eta Palestinako borrokaren sostenguz berriz antisionistak bilakatzear, 1970eko hamarkadan Israelgo eredu kasko zokoan zeramaten bi idazle kausitzen dira gurean: batetik Euskal Herri barnealde desertatuko garapena kibbutz moduko antolaketak akuilatu-ko zuela sinesten zuen Beñat Laxague enpresari aldudar ohia eta bestetik hebrearra ikasteraino iritsi zen Xabier Kintana, bilbotarrak Tuterako Yehuda Ha-Leviren olerkiak euskaraz paratu zituela.

Judu herratuaren edo *Jüdiferraren abestiak* erakusten du, beharrik balitz, euskaldunok ez garela nehoiz Europako olde kulturaletatik kanpo bizi izan eta argi uzten digu zein eta nolakoa zen historian zehar judutar munduarekiko gure harremana.

*Joan behar niz aitzina, oi hau doloria!
Bestela enetzat tormenta haundia... ■*



UNAI ITURRIAGA eta IGOR ELORTZArekin idatzia
ZUZENDARIA: XIMUN FUCHS
AKTOREAK: ANDER LIPUS PATRICIA URRUTIA MANEX FUCHS
ZOILA BERAESTEGI URKO R. PESCADOR PAKO REVUELTAS ERIKA OLAIZOLA
Artedrama | Le Petit Théâtre de Pain | Dejabu Panpin Laborategia
www.franco.eus

URRIA
31 LUHUSO

AZAROA
2 GASTEIZ
4 AZPEITIA
9 DONOSTIA
10 DONOSTIA
11 DONOSTIA
12 DONOSTIA
13 DONOSTIA
17 BILBO
18 LEIOA
19 DONIBANE GARAZI
26 LARRESORO

ABENDUA
1 IRUÑEA
3 SENPERE
4 HONDARRIBI
6 DURANGO
9 SOPELA
11 MARKINA-XEMEIN
16 ZUMAIA
17 OTXANDIO
18 ATAUN





OSASUNTSU AL DAGO EUSKAL ZINEMA?

*Koldo Almandozen Sipo Phantasma filma
Rotterdam en estreinatu zen.*



Aste batzuk pasa dira Donostiako Zinemaldiak argiak itzali zituela. Aurten, Zinemira sailean (Euskal zinemari eskainitako saila) sakontasun gehiagorekin murgiltzeko aukera izan dudanez, termometro paregabea iruditu zait datozen hilabeteetan estreinatuko diren euskal ekoizpenen osasuna neurtzeko. Orokorrean, sorpresa oso atseginak topatu ditut, bai film laburren arloan, baita fikziozko film, kontakizun esperimental eta batez ere dokumentalen artean ere.



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Dokumentalak

Lehenengoa, proiektu oso interesgarria eta mamitsua. Juanmi Gutierrezek beste behin, oso ezaguna ez den beste errealitate bat pantailaratu baitu *Oihalak adarretan* dokumentalean. Baliabide eskasekin, baina aurreko lanetan egin bezala, sormen lan garrantzitsua eskainiz. Armeniar batek bere desira ezkutuenak betetzea nahi duenean, oihal zati bat zintzilikatzen du "nahien zuhaitzen" adarretatik. Zuzendari gipuzkoarrari tradizio horrek izenburu gisa balio izan dio bere azken dokumentalerako, *Oihalak adarretan*. Herri armeniarren errealitatera gerturatzeko gaituen lana, ikuspegi historiko, geografiko eta migrazioailetik begiratuta. *Gutik zura* ekoizpenak berri (Mari Jose Barriolak zuzendua eta Jon Maiaren gidoiarekin), basoaren, zuraren eta euskal jendartearen arteko harremanak izan duen, gaur egun duen eta izango duen balioa agertzeko aukera eskaini digu. Antzinatik etorki-zunerako bidaia eginaz eta lur hone-tako gizakiaren eta zuraren arteko harremana azalduz. Iratxe Fresnedaren

Irrintziaren oihartzunak lehen lanean, Mirentxu Loiarte ezagutzeko aukera izan dugu, Europako zinemagintzaren aitzindari ausart horietako bat. Zinemagile nafarraren memoria eta obra miatu asmo dituen begirada bat da *Irrintziaren oihartzunak*; topaketa baten kontakizuna, hezur eta mamizko altxor zinematografiko baten bilaketa: gogoratzeko zailtasunak dituen pertsonaia batena, edo gogoratu nahi ez duena. Ezin ahaztu jakina, Eriz Zapi-rainen *Gaur irekiko ditu ateak* lanari esker, sorrera bati buruzko kronika ikusteko aukera izan dugula, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera pozgarri eta itxaropentsua baitauka hizpide. Lanaren bi euskarri sendoenak: batetik, istorioa bera; elkarrizketatu ugariaren bitartez sorrera gogor, polit eta pozgarri horren lekuko zuzen bilakatuko gaitu. Eta bestetik teknikoki bikaina dela, sinplea baina oso txukuna.

Eta azkenik –dokumental eta fikzioaren artean mugitzen den arren– proposamen fresko, dibertigarri eta ganberroena, aurtengo Zinemira sariaren irabazlea: *Pedaló*. Juan Palacios zuzendari eibartarrak, Jon, Joseba eta Eneko euskal kostaldea zeharkatzen ipini ditu. Internet bidez pedalo bat erosi ostean, Biarritzetik Bilbora abiatuko dira, 20 egun iraungo dituen bidaia zoro batean. Oso gutxiarekin, ekoizpen berezi, polit eta desberdina egin daitekeela frogatu digute.

Fikziozko filmak

Fikzioaren esparruan ere nabarmentzeko proiektuak izan dira. Koldo Almandozen lan bitxi eta erakargarria adibidez. Rotterdam-en estreinatua, *Sipo Phantasma* naufragioei, banpiroei, amodioei eta zinemari buruzko kontakizuna da. Bram Stoker, Murnau, Oscar Wilde eta *Nosferatu* izan ditu hizpide, Florence Balcomberen (Maiden Intxauspe) presentzia aztoragarria tartean. David Aguilar zuzendariaren *Mara mara* lan paregabea ere, nabarmentzekoa. Irudiak, muntaia, soinua eta batez ere hitzen gabezi horiek, modu zoragarrian uztartzea lortu du, hitzen bidez deskribatzea oso zaila den atmosfera sortuz. Eta azkenik, *Igelak*. Oso irregularra iruditu zaidan arren, ikusteko atsegin iruditu zait Patxo Telleriaren hirugarren lan hau. 97 minututan, momentu nahiko entretenigarria

bizitzeko aukera eskaini didalako. Interpretazio egokiak, ongi errodatutako une musikalekin tartekatuz eta irribarre txiki batekin amaitzeko abagunea eskaini didalako. Azken finean, gure hizkuntza pantaila handian entzutea, beti delako pozgarria.

Film laburrak

Zinemira sailean, halaber, Kimuak 2016 katalogoko 7 film laburrak ere aurkeztu dituzte (Euskal Herrian egindako film laburren aukeraketa). *Gure hormek* dokumental-laburra Maria Elorza eta Maider Fernandez zuzendariek osatzen duten Las chicas de Pasaik kolektiboak sinatu du. Egileek etxeko hormak hartu dituzte abiapuntu, emakumeen esparruari buruzko gogoeta zolia egiteko. Asier Urbietak egile donostiarrak *False Flag* thriller politikoa aurkeztu du. Eneko Sagardoy eta Maarten Dannenberg dira antzezle nagusiak. *Beti bezperako koplak* izeneko eta Begoña Vicariok koordinatutako proiektua berriz, Maialen Lujanbiok Santa Ageda bezperako koplak haren egindako bertso baten interpretazioa da. Santa Ageda doinuaren erritmoa eta metrika erabiliz, genero indarkeria salatzen du modu gogor eta lehorrean. Film laburren arloan beste izen ezagun bat, Mikel Rueda: zuzendu duen *Caminan* dramak Maribel Verdú eta Germán Alcaraz ditu protagonista eta ezerezaren erdian elkartzen diren bi pertsonaia bakarti erakusten dizkigu. Saila osatzen dute Kepa Sojoren *Hileta*, Alejandro Díaz Castañoren *Ihesa* eta Loreak film luze sarituaren ostean Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak batera egindako *Renovable* lanek.

Orain milioiaren galdera, noiz egongo dira ikusgai lan horiek guztiak? Izango duten ibilbide komertziala oso eskasa –hutsala?– izango denez, konplikatua samarra erantzuna ematea. *Igelak* ziur izango dugula zinema aretoetan ikusteko parada, baina gainerako guztiak ia ezinezkoa izango dela iragartzen dut. Zorte apur batekin, herrietako kultur etxeetan ikusteko aukera izango dugu, zirkuitu alternatiboetan, ziklo berezietan edo agian telebistan. Baina beste askotan gertatzen den bezala, ostrazismoan galtzeko arriskua daukate. Euskal zinemagintza osasuntsu dagoela diodanean, nitaz fidatu beste erremediorik ez duzue beraz. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Memoriaren bidegurutzean



Amaia Serrano Mariezkurrena



Antzararen bidea

JOKIN MUÑOZ

Alberdania, 2007

80 urte igaro dira 1936ko Gerrak eztanda egin zuenetik, eta iragan hori oraindik ate-joka dugu. Euskal komunikabideetan gerra galdu zutenen oroitzapenak biltzen ari diren bezala, errepresioaren arduradunen gorai-pamenak ezabatzen dihardute Nafarroako kaleetan. Historia berridazten, birsortzen eta moldatzen ari gara etengabe.

2016ko Donostiako Zinemaldiak ere egin dio keinu memoriari (ala ahanzturari, nola begiratzen den), errealtatea iraganean bizi duen emakume errenteriarren istorioarekin. *Ni ez naiz hemengoa dio* Josebek bertan, Joseba Sarrionandiak zioen bezalatsu. Ildo horretan, gomuta-lekutzat har dezakegu *Antzararen bidea*. Eleberriak ia hamarkada bete badu ere, gaia nahiz garaia oso gertukoak ditugu euskaldunok, eta bertako pertsonaiek bizi-bizirik diraute.

1936ko nafar Erribera eta 2003ko Donostia. Bi une historiko horietan pentsamendu eta jokabide ezberdinetako pertsonaiak biltzen ditu Jokin Muñozek, nahiz eta polifonia horretan bi bakarlari nagusitzen diren: batetik, gerra hasi berrikan Donostiara ihes egin behar duen agurea (Jesus) eta, bestetik, semea bonba bat manipulatzeko ari zela hil zaion emakume gaztea (Lisa). Ezinezkoa dirudien ispiluen alde banatan dago bakoitza, kezka existentzial berberen aurkia eta ifrentzua direla konturatzea eramaten dituen arte. Ahots askoren artean bi horiek nabarmentzen dira, baina beste pertsonaia batzuen etengabeko zurrumurruak ere zeharkatzen ditu istorioak. Lehenaldiko oihartzunak dakartzan marmar horretan topatzen ditugu, esaterako, bi emakume oso

ezberdin: Paula eta Candi. Eguna eta gaua, baina bi-biak zapalkuntza berak berdindurik, gerrako genero-indarkeriak markaturik. Bata, eraila; bestea, iragan hartan harrapatua.

Jokin Muñozek, ohikoa duen gisan, euskaldunon minez dihardu, gure gizartearen arrakaletan arakatuz kritiko agertzen da, dela 36ko Gerrari buruzko diskurtsoan jazarriak izan diren taldeen ahotsak gerturatuz, dela gatazkaren inguruko irakurketa-proposamenean ezker abertzaleen jarrera batzuk salatuz.

Hori guztia hizkuntza literario landu eta onduan eskaintzen digu idazleak: Erriberako paisaien deskribapen ederrak, narratzai-learen ironia fina, askotariko ispilu-jokoak, intrigari eusten dion erritmoa, pertsonaia batzuen umorea... Hala, zilegi den memoriaren eta ez denaren arteko tentsioa azaleratuz, hamaika galdera eta berrirakurketa gorpuzten ditu *Antzararen bidea* eleberrian, denborari iskin egiteko eta haren joanaz hausnartzeko aitzakia bilakatzen dela. ■

Jokin Muñoz Trigo idazlea (*Castejón, Nafarroa; 1963*).



» TELEGRAMA

Urriaren 14an, Gasteizko EHUkultura egitarauaren barnean, **Eskorzo taldeak** *Camino de Fuego* aurkeztuko du JimimyJazz aretoan, 20:30etan **STOP** Urriaren 15ean **Xilaba Bertsulari Xapelketaren** bigarren finalaurrekoa jokatu da Nafarroa Behereko Izturitzeko Herriko Arteoan, 17:00etan **STOP** Urriaren 21ean, **Joseba Irazoki eta Jon Mantxi** musikariek kontzertu bana eskainiko dute Iruñeko **Katakrak kulturgunean**, 19:00etan **STOP** Urriaren 14tik abenduaren 4ra bitartean, erakusketa Pasaia-ko Ciriza Etxean: **Ricardo Ugarte Pasaia San Pedroko badian STOP**

» DISKOA

Geruzen gaineretik piztia



Iker Barandiaran



Hauts

LIHER

Autoekoizpena, 2016

Izen bera duen lagun on bat badut ere, ez zait berez erakargarria egiten ekin-tza-gunea Donostian duen talde honen izena, baina taldekideek izango dute horretarako arrazoirik eta, zer arraiol, beste askotan bezala ohituko gara seguru. Gainera, badirudi talde hau luzerako etorri dela; izan ere, hasierako pausoak irmo ematen dabil laukotea, eskaintza landua prestatu du, non-nahi jotzeko irrikan dago eta zer konta ere badu. Zer gehiago eskatu dezakegu? Taldearen arima eta arnasa den Lide Hernandok 2015ean ekin zion bakarka emanaldi akustikoak egiteari eta maketa ere kaleratu zuen. Gerora, musikari gehiago batu zitzaizkion eta, emaitzak gorputz handia hartuta, honako diskoa argitaratu dute beraien kabuz.

Lide Hernando donostiarra berria da musikaren eszenan, baina badirudi emateko asko duela eta ahalegintzeko prest dagoela, gainera: horren erregistroak, horren ahots jarria eta aniztasuna. Eta alboan musikari finak ditu, gehienak eskarmen-tudunak, Lideri gaineretik proiektatu eta hegan egiteko lurzorua zaindu eta errazten diotenak, dotoreak. Horien artean oso nabarmenezkoa da Naizroxa eta Anai-Arrebak taldeetan luze aritutako Etxarri gitarra jotzailerak egindako lana.

Lehenik eta behin –nahiz eta ez dudan sarri jomuga hor jar-

tzen– kantuen hitzak goraipatu nahiko nituzke. Existentialak dira, edonoren bizitzan txertatzeko modukoak eta oso egiazkoak. Eta gustatu zait nola idatzi dituzten: ostia txarra, hausnarketa eta ironia neurri oso egokian uztartuta.

Musikari dagokionez, bederatzi kantutan abeslari erraldoi eta talde sendo zein irudimentsua agertu zaigu aurre-aurrean. Diskoari izena lapurtutako *Hauts* jantzi rockeroa duen pop perla ederra da; *Kaiola* nire gustukoena da, indartsua, rockeroa, dantzagarria eta Lide beltz bihurtuta erabat aske ari dena. *Lurrean hegan* balada hit!a da, progresibotik edan eta erraz asko *mainstream* kantua izan daitekeena. *Esnea zuri* metaforikoak 70eko hamarkadako karga handia dauka eta bluesa zein rocka batuz, groovetik eta souletik ziprztintzen ondo dakitena. *Kizkaliz berpiztu* malenkoniatsua da, ia orkestrala, eta urgengtiaz betea eztanda egiteko puntuan. *Maitemina* piezak kontzeptuan eta iluntasunean Cave-n *Murder ballads* ekarri dit gogora, nahiz eta hard-rocketik eta Iparraldeko kantutegitik elikatuta beste parametro batzuk erdiesteko gai den. *Ez egin topa* soul ganberroa da, oso itsaskorra, dantzagarria eta fiesteroa; zuzen-zuzena. *Gizarte likido* rockeroa eta stoner erabat pisutsua da, zapalgailu hutsa, haizezko instrumentuek lortutako akaberarekin zur eta lur utzi gaituena. Eta, azkenik, diskoa ixten duen *Behazun beltza*, pianoaz lagundutako blues-rock dotorea. ■

Liher talde donostiarra.



Egurrezko kristala

KUARTZ-EN KONTZERTUA

Iparraldeko rock eszena ttipia oraindik bizi dela ikusi genuen joan den urriaren 1ean... Bunuzen! BOTA gaztetxeak berriz ere besta ederra antolatu zuen, azken 15 urteetan preso den Didier Aguerre Pagollarren sostenguz.



Andrea Zubozki

Hau izan zen gauldiaren egitaraua: Amaren alabak xiberotar abesbatza, Doctor Mephisto blues rock bertsio talde fina, Zoo-ren hardcore-rap experimentalak, Kuartz talde berri berria eta lepoen astintzen segitzeko Dama Baztango metalcore laukotea. Estilo desberdinetako talde horiek entzuleengan kuriositatea piztu eta giroa laster berotu zuten.

Jo zuten talde guztiek kronika bana merezi badute ere, honakoa Kuartz taldeari eskainia izanen da.

Kuartz, stoner rock bizia jotzen duen bikotea da. Ibes Mongabure gitarran eta kantuz, lehenago Hurmura metal taldean ezagutu genuen. Teknika landuari esker baxuaren lana ere egiten du Ibesek. Bere gitarra soinu indartsua aterako zuela nehorik dudarik ez zuen baina



Kuartz taldeko Ibes Mongabure eta Oihan Delavigne udan emandako emanaldi batean.

talde berri huntan kantari talentuak ere erakutsi ditu!

Baterian Oihan Delavigne, nehoiz jotzen ikusi ez nuena. Honek zuzen eta indartsu laguntzen ditu Ibesen riff-ak, eta plazerez egon nintzen haren jokoa behatzen.

Hor dugu bikotea: kantuak arras landuak, bien arteko kohesio ederra, publiko harrotzeko helburuarekin.

Aspalditik gustatzen zait stoner musika, 1990eko hamarkadan Kaliforniako basamortuan Kyuss taldeak bluesa, rocka eta metala batuz sortu zuen estiloa. Azken urteetan stonerra anitz entzun bada ere, Kuartzek erakutsi digu bazuela zer erran, eta uda hontan kontzertuak ematen hasi den taldeak jada bere nortasuna baduela dudarik ez da! Taldeak ez du stonerraren aurpegi psikodelikoa

lantzen, baizik eta estiloaren zuzentasuna, indarra eta melodia. Estiloaren kodigoak hor ditugu bai, baina eraginak nahasiz finezia eta sorpresa ere sortzen jakin dute. Melodia ederrak, riff dinamiakoak, pasarte lasaiagoak ere bai, aspertzeko astirik ez digute utzi bi horiek.

Eszena gainean jarrera xumea badute ere, jotzeko plazerrak animatzen dituela ageri da, eta kantu on zein landuei esker, gaitzeko energia transmititzen dute. Aspektu teorikoekin zuek konbentzitzen entseatu naiz orain arte, baina burmuina itzali eta zentzuekin pentsatzean, sinpleki erran nezake gau hartan Kuartzek egurra bota zuela! Lehen lerroan ginen lagunek denbora guztia pasatu dugu dantzan, saltoka, oihuka, irria ezpainetan. Bota beste garagardo bat! Hori bai rock'n'rolla! ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Euskal Herriko gazteluak

DOZENA BAT ①	NAHIGABE LETRA GREKOA	ALUMI- NIOAREN SINBOLOA EUROPAKO MONETA	ENTZUTEN EZ DUENA BURUSIA, TAPAKIA	SASOIRA HELDUA	ADIMENA ERABILIZ JOERA, ZALETASUNA	③ 51 ERROMATAR ZENBAKIZ
				② BELA- RRONDOKO, ZAPLAZTEKO		
AURPEGI, BEGITARTE DAGO		ARTOAREKIN EGINDAKO IRINA (BI HITZ) AITONA				
	ERARA GAUZAKIEI ARIMA EGOZ- TEN DIEN ERLIJIOA		GARBI, TXUKUN ZABU			BITAMINA BAT TXOKOLATE- HAUTS
"TXORI ... BERE ADARRERA" BAKOITZAK BI				ARGIZARI EUSKARA EZ DENA		
		LANTEGI AXOLA, KEZKA			ZEREZ ATZIZKIA MORROI	
ADORETSU	UR-KORRON- TE NATURAL EAKO BIZTANLE		GATAZKA SOBERA, GEHIEGI			
				EGUNA SARRERA OZTOPATU		DONARI, GOLARDO
NAGI ITSASO, HITZ ELKAR- TEETAN		IDEIEN MULTZOA SUI TZAKO IBAIA			DIRU OBATU ADITZAREN ERROA	
			④ OINARRIZKO EDARI			ANPEREA INTER- JEKZIOA
⑤ JAUSARAZI				⑥ AZKEN LETRA		
					KONTRAKO- TASUNA ADIERAZTEKO AURRIZKIA	


Jolasa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Hondarribiko Higer badiako itsaslabar baten gainean dagoen gaztelu honi Piraten Gaztelua ere esaten zaio. 1598. urtean eraiki zuten, Astuariagako portuaren sarrera zaintzeko xedez. Gaur egun etxebizitza pribatua da.

② Zuberoako hiriburuko muino batean kokaturiko gaztelua.

③ Gasteiztik hurbil dagoen gaztelu hau Laña ibaiaren eta ibi baten ondoan dago, beraz, bideak zaintzea izango zen, ziur aski, bere lehenengo egitekoa. Gaur egun, Arabako Heraldika Museoaren egoitza da.

④ Bizkaiko Erdi Aroko gaztelu hau izen bereko errekaaren bihurtune batean altxatuta dago, Gatian. Gaztelua inguratzen duen parkea balio handikoa da, izan ere, espezie exotikoz eta bertako espezieez jantzitako lorategia dauka.



⑤ Baztango gaztelu honek leku berezia du Euskal Herriko historian, izan ere, Nafarroa Gaztelako Erresumarengandik defendatzeko azken saiakera egin zuten bertan. 1522an Gaztelako armadaren eskuetan geratu zen eta gaztelua suntsitu egin zuten. Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako indusketa-lanei esker gaztelua nolakoa izan zen jakin dugu eta hainbat objektu berreskuratu dira.

⑥ Erdi Aroko gotorleku hau Nafarroako Erdialdean dago, Zangozatik zortzi kilometrora. Urtero, martxoaren hasieran, herri erromesaldi ezagun bat egiten da bertan.

Soluzioak

E			I		K		B		D		S	
R	A		T	A	E		I		B		M	A
O	M		S		M		N		A		N	H
R	A		A		E		B		K		U	A
A	I		S		N		A		O		E	A
R	U				T		I		E		L	A
A	R		B		S		T		A		A	
Z			U		U		B		I		R	G
I	X		T				O		Z			
	A		R		D		L		X			U
A	B		O		A		E		A		M	
N	I		E		T		R		H		A	B
T			S		A		O		U		U	L
I	A						K		D		I	M

Xabi Sanchez Goronaeta. Sexua erdigunean jarrita



Iruñeak badu LGBTQI politikak garatu ahal izateko bulegoa. Kattalingorriko kideak gogor ibili dira lanean azken hilabete hauetan, ikasturte berriarekin batera bulegoko baliabide guztiak martxan jarri ahal izateko. Ekimena ez dator komunitate zehatz bati zerbitzu asistentziala ematera bakarrik, gizarte osoari egin nahi dio ekarpena: erreferentzia sexologiko berri bat izan nahi du pertsona guztientzat.

“Sexuan arreta jartzea gorputzera itzultzea da”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Identitatea eta orientazioa

“Askotan gertatzen da identitatea eta orientazioa nahasten direla. Nire baitan elementu maskulinoak eta femeninoak aurkitzen ditut, ordena guztietako maskulino eta femeninoak, kontua da horiek nola bizi ditudan. Emakume femeninoa izateak –nolabait esatearren– ez zaitu heterosexual bihurtzen ezinbestean, eta alderantziz, gizon oso maskulinoak ezagutu ditut orientazio homosexuala dutenak”.

Sexua ala generoa, non jarri arreta?

Argi dago eraldaketa sozialean urratsak emateko bietan lan egin behar dela. Halere, uste dut azken urteetan denbora gehiago eskaini diogula generoaren auziari sexuari baino. Hamaika teoria garatu dugu horren inguruan eta asko aldendu gara sexutik. Generoa sexu soziala da, gertatzen dena da genero izena eman diogula, baina funtsean sexutik eratortzen da. Nire ustez, sexutik aldentzean “gorputzak” eskaintzen duen ootasunetik urruntzen gara, baita norbanakoen artean ematen den elkartzetik (enkontrutik) ere.

Sexutik aldentzean, zer ahazten dugu?

Norbanakoak elkartzean ematen diren aukerak, berezitasunak eta aldagaiak. Sortzen ditugun harremanetan, arreta jartzen dugunean, konturatzen gara generoaren eta botere harremanen inguruko teorizazio guztiak ez direla nahikoa enkontrua bera ulertzeko. Sexua bizitzea pertsonen arteko erlazio moduak zentzura ekartzea da: azken batean, hainbeste teoriaren artean, nola demontre egiten dugu zuk eta biok el-

karren arteko harremana gauzatzeko? Badakigu subordinazio egoerak bizi gaituela, baina ez dakigu nola harremana egin elkarrekin.

Gure inguruan, zein da esparru honetan ikusten duzun beharrik handiena?

Euskal Herria oso herri bizia eta bitxia izan da beti. Dena dela, edozein herrialdetan dagoen bezainbesteko aniztasuna dago hemen, ez gara bereziki ezberdinak zentzu horretan. Alabaina, egia da Euskal Herrian korrante politiko handien eragina nabarmena izan dela; esate baterako, feminismoak potentzial izugarria dauka. Baina berriz ere diot, buruan eta teorizazioan gehiegi aritu gara eta gorputzaren ingurukoak ahaztu ditugu gehiegitan. Sinistuta nago gorputzaren inguruko eza-gutzak eta jabetzeak potentzial politiko handia izan dezakeela, eta gurean horretaz jabetzea askapen prozesuetarako erabakigarria izan daitekeela.

LGBTQI kolektiboak eta feminismoak bat egiten duten une hori; zein da?

Nire ustetan gehiago elkartu beharko lirateke; iturburu errepresibo berbera



konpartitzen dute, heteropatriarkatua, hain zuzen. Halere, oso bilakaera ezberdina izan dute. Emakumeen borroka batetik, homosexualitatearena bestetik eta transexualitatearena azkenik. Ordena honetan garatu dira aldarrikapenak, neurri batean itxarote-zerrendak eta hierarkiak izan badirelako.

Eskua emanda aritu beharko lirateke, beraz?

Jakina. Eta ez dut kritika modura esaten, azken batean, jendea gauzen alde mobilizatzen denean mugitzen dira gauzak, eta emakumeen aldeko borroka jende asko mugiarazi du. Halere emakume/gizon kategoriak aldarrikatzea politikoki baliagarria izan badaiteke ere, nire ustez interseksionalitateaz hitz egiten hasi behar gara. Aliantza horrek, beraz, horretan egin dezake indarra: nola egin dezakegun denborarekin binarismoa gainditzeko eta bestelako identitateak aldarrikatzeko.

LGBTQI, gero eta gehiago luzatzen den terminoa...

Ulergarria da guztiz. Pentsa, pertsonen baitan ordena guztietako maskulinoek

“Emakumeen borroka batetik, homosexualitatearena bestetik eta transexualitatearena azkenik. Ordena horretan garatu dira aldarrikapenak, neurri batean itxarote-zerrendak eta hierarkiak izan badirelako”.

eta femeninoek bat egiten dute: sozialek, kulturek, endokrinoek, biologikoek... Horiek guztiek norbanako intersexualak garela adierazten digute, eta horrek ez du zerikusirik genitalitatearekin. Zentzu horretan, LGBTQI mugimendua kluster bat da. Akronimo horrek identitateaz eta orientazioaz hitz egiten digu: denborarekin adieraziz joan gara zer ari garen aldarrikatzen, eta aniztasun horri guztiari buruz hitz egiten dugu norbera nahi duen lekuan koka dadin.

Zein izan da Iruñean ireki berri duzuen bulegoaren ibilbidea?

Oso luzea izan da. Duela hamasei urte hasi ginen honen aldeko lanean Iruñean. Dena hasi zen EHGAMen geundenean LGTB zerbitzu baten beharraren inguruko eztabaida egin ondoren, Gomik eta biok Amsterdamera egin genuen bidaia batekin. Bagenekien han mugimendu

asko ematen ari zirela. Egin kontu, udal igerilekuak igandeetan homosexualentzat irekitzen zituzten, elkargune bat izan zezaten, eta horrekin guztiz liluratu ginen. Handik etorri eta Kattalingorri bulegoa ireki genuen Iruñeko alde zaharrean. Hamasei urte pasatu dira eta oraingo honetan bulegoa martxan jartzeko lagundu diguten arte ez dugu izan inolako babes instituzionalik.

Honetan guztian, instituzioek zertan lagundu dezakete?

Bada, hasteko, publikoa dena esanahi berriz betetzen. Alor publikoa jendearen alorra da, ez gehiago eta ez gutxiago ere. Zentzu horretan udal baliabideak, hau da, jendearen baliabideak, LGBTQI komunitatearen esku uztea publikotasunari beste dimentsio bat gehitzea da. Pertsona horiek guztiak instituzioen zerbitzurik eta arretarik gabe egon dira, eta hori ez da zuzena. Edozein kasutan, ez da zerbitzu asistentzial bat bakarrik izango, gizarte osoari begirako kanpainak egin nahi ditugu. Erreferentzia sexologiko berria izan nahi dugu Iruñeko herritarrentzat. ■



ARGIAko kultura saileko erredaktore graziaz beteak, aparkalekutik lantokirako bidean. Atzean doakie erredaktore-burua.

Urriaren 12a, egun berezia ARGIAko erredakzioan

Espainiako indar armatuen eguna, Koton Amerikara iritsi zenekoaren urtemuga... Ezin ukatu: egun berexi-berexia da urriaren 12a. Bai, ados, ARGIA duela urte batzuk erabaki genuen egutegi ofizialak dienez paso egin eta egun horretan lan egitea -ez preseski ordu estrak oso ondo kobratzen ditugulako, dena esan behar bada-, baina gauza bat da hori eta beste bat espainiarren jaiarenganako gutxieneko begirunez ez jardutea. Horregatik, protokolo berezia aktibatu genuen joan berri zaigun Pilarika egunerako: guztiok desfilean sartu ginen lantokira, eta derrigorrezkoa zen

zuzendaria ikusi bezain laster agur militarra egitea (batzuek politiko-militarra hautatu zuten, ez gara hain zurrinak, aizue). Jantzkerari dagokionez, askatasun handixeagoa izan zen. Hala, espainiar armadako trajea ekartzea gehiegizkoa iruditzen zitzaienei bide alternatiboa eskaini zitzaien: ertzainez jantzita etortzea. Armadako trajea hobetsi zuten denek, berdea ekologikoagoa dela argudiatuta.

Uztailaren 14an ere normal-normal egin genuen lan, baina bazkarian tortilla frantsesa jan genuen denok, zuzendari-tzaren gomendioz eta hola.



Hiru lagun Itzurungo hondartzan, castingerako ilaran jartzea merezi duen ala ez eztabaidatzen.

Zumaiarren %99,9k ez du maila eman Tronu Dema-ren castingean

Zumaiako edo inguruko 200 gizonzkoen bila aritu da *Tronu Dema* telesaileko casting zuzendari Michael Flysch. 1,78-1,95 metro artean behar dute izan, zuriak, sasoiak, tatuajerik gabeak eta esperientzia militarra dutenak, ahal dela armada ofizial batean. Zumaiarren %99,9k baldintza guztiak betetzen zituen, salbu eta sasoi egotearena. "Total, bospasei kilotxo sobra ditudalako bota naute atzera", kexatu da Joxe Joakin Zakutozabal, marianittoa eta kalamareak eskuetan. Pertsona bakarrak lortu du Flysch jaunaren oniritzia: Jon Maia itsasgizonak. Eta gehiago izan da bere hitz-jario ederrarekin limurtu duelako, baldintza guztiak bete izanagatik baino.

Castera aurkeztutakoen erdia triste bueltatu da etxera, sexu-eszenetan parte hartu behar ez zutela jakindakoan.

Nafarroako Jauregiko ereinotz koroa ordezkatzeko ideia lehiaketa hasi da




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

50€

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

